

IBILBIDEA POLLOE HILERRIAN ZE HAR

Artea, Historia eta Pertsona Ospetsuak

Testuak:

María Ordóñez Vicente eta Ana Fontán Agorreta

Argazkiak:

J. I. Lobo Altuna

Felix Olazabal Arozena

Pilar Aguayo Tolosa

Natxo Castellanos Etxeberri

María Ordóñez Vicente

Kutxateka - Kutxa Fundazioa

Donostiako Udal Artxiboa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Polloe | Hilerriak eta Errausketa-Labea
Cementerios y Crematorio

Polloe hilerriko mausoleo eta monumentu nagusi batzuen gida bat aurkeztu dugu. Hauek aukeratzeko bisitariarentzat interesgarria izan daitekeen gure hilerriko kultur eta artistiko ondarrera hurbiltzea eta, era berean, Donostiako hirira, ibilbide batean egotea merezi duten balore artistikoa edo kultur eta historiko garrantzia kontuan izan da.

Bisita puntu hauek Polloeko artistiko, historiko eta kultural aberastasunaren zati txiki bat besterik ez dira. Ikerketa aurrera doa etorkizunean Polloe hilerrian diren beste hilobi-arkitekturaren adibideak ibilbide honetan erantsa daitezke.

Gida ez genukeen argitaratuko bertan agertzen diren familia askoren laguntzarik gabe. Polloetik beraien ekarpenak eskertu nahi ditugu. Haiek gabe, nekez hurbilduko ginatekeen gure hiriko bizitzan eragina izan duten hainbat eta hainbat adiskideren nortasunera.

Oharra: Bisita puntuen ibilbide hau gida bizia da. Edozein bitxikeria historikoa, artistikoa edo Polloe hilerrian lurperatuta dagoen pertsona ospetsu bati buruzkoa ezagutzen baduzu, polloe@donostia.eus emailarekin harremanetan jarri.

Aurkibidea

- 00. Hitzaurrea- 4
- 01. Polloe plazatxo- 6
- 02. Azqueta panteoia- 8
- 03. Cortázar panteoia- 10
- 04. Luzuriaga kapera- 12
- 05. Zubietako batzordeari monumentua - 1813- 14
- 06. Zozaya panteoia- 16
- 07. Guereca kapera- 18
- 08. Bilintx- 20
- 09. Antonio Arzac Alberdi- 22
- 10. Calbetón panteoia- 24
- 11. Oliván panteoia- 26
- 12. Fermín de Lasala y Collado, Mandasko Dukea- 28
- 13. Brunet kapera- 30
- 14. Rezola panteoia- 32
- 15. Pedro Alejandrino Irureta- 34
- 16. Otamendi Machimbarrena kapera- 36
- 17. Luis Aladrén Mendivil panteoia- 38
- 18. Lataillade kapera- 40
- 19. Raimundo Sarriegui Echeverría- 42
- 20. Ohlsson panteoia- 44
- 21. Luzuriaga panteoia- 46
- 22. Aingeruaren irudia- 48
- 23. Francisco Grandmontagne- 52
- 24. Kutz panteoia- 54
- 25. Mihura panteoia- 56
- 26. Gurutze Gorriaren monumentua- 58
- 27. José María Usandizaga panteoia- 60
- 28. Echeverría - Lorbes panteoia- 62
- 29. Ignacio Zuloaga- 64
- 30. Monumentu Obeliskoa- 66
- 31. Marcial de Aguirre panteoia- 68
- 32. Yturralde panteoia- 70
- 33. Ayestarán - Otamendi y Mendía panteoia- 72
- 34. Romero - Sein kapera- 74
- 35. Zappino kapera- 76
- 36. Urbietta kaleko sutearen monumentua - 1893- 78
- 37. Euskal disko-formako estela - Uruñuela panteoia- 80
- 38. Francisco Zubiaurre Cabañas "Kiriko" panteoia- 82
- 39. Alvaro de Laiglesia panteoia- 84
- 40. Martín - Santos panteoia- 86
- 41. Miguel Asín Palacios panteoia- 88
- 42. Jesusen bihotzaren irudia- 90
- 43. Sanz - Acín panteoia- 92
- 44. Julián Rezola panteoia- 94
- 45. Clara Campoamor - Monsó Familia panteoia- 96
- 46. Rotondo Nicolau panteoia- 98
- Oinarrizko Bibliografia- 100

00.

Hitzaurrea

📍 Polloe hilerria



San Bartolomeko hilerria



Hileta-gurdia

Belaunaldiz belaunaldi, kristauak beti saiatu dira hildakoa komunitatearen barruan gordetzen, eta ez urruntzen. Horretarako, pertsonaren oroimenerako tokirik solemne eta artistikoena hautatu ohi zen. Parrokiako eliza toki ezin hobea zen; hileta-kaperak zituen, eliztarren oinen pean gelditzen ziren hilobietako hilarriak, eta elizaren perimetroko espazioa ere egokia zen gu arbasoengandik hurbil egoteko, eta haiek aldiz, beren salbatzailearengandik hurbil.

XVIII. mendean zehar, ilustrazioa iritsi zenetik, hirietako harresien barruan gorpuk ehorzteko ohiturak osasun-arazoak zekartzala ohartu ziren agintariak. 1781. urtean izurrite bat zabaldu zen Pasaian, eta hango parrokia-elizatik sekulako kiratsa irteten zenez, Carlos III.ak pragmatika bat aldarrikatu zuen 1787an, gerora ere errepikatuko zena. Hiriko harresien barruan zeuden elizetan, haien barruan edo inguruetan gorpuk ehorztea debekatu nahi izan zuen, baina hala ere, ez zen lortu. Arau berriak erlijio-sentipenekin talka egin zuen, eta adibidez Donostian 1813 arte ez ziren San Bizente eta Santa Mariako ehorzketak eragotzi; garai hartan, hiria ia erabat suntsituta zegoela, harresietatik kanpo zegoen San Martin auzoan ezarri zen lehen udal hilerria. XIX. mende erdialdera handitu egin zen, San Bartolome mui-noan bigarren hilerri bat jarrita.

1864. urtean toki berri bat bilatu beharraz ohartu ziren; izan ere, harresiak eraitsi ondoren, hiria hedatzen ari zen, eta bi hilerriek eragotzi egiten zuten.

Polloe aukeratu zuten 1875ean, hilerri moderno baten ezaugarri guztiak baitzituen: hiriaren etorkizuneko hazkundea ez eragozteko behar bezain urruti zegoen, etorkizunean handitu egin zitekeen, ongi aireztatutako ingurua zen, haizebekoa, eta gainera, gorpua azkar diseatu eta desegiteko lur egokia eskaintzen zuen.

"...kale zabal eta luzeak... ongi aireaztatutako etxadiak... behar bezain beste pasealeku ditue-na... eta zuhaitzak dituzten kaleak ere bai..." hala deskriba genezake Polloeko hilerria. Baina egiaz, 1864an egindako hiria Zabalitze Proiektua deskribatzen duen Memoria baino ez da. Hala, hilerriaren planora eraman zen udal taldeak hirirako nahi izan zuen ideia. 1897an, kronikari madrildar batek adierazi zuen, Sotomayor-eko markesaren hiletan berri ematen ari zela, Polloe era modernoan egindako hilerria zela. Kale zuzenak zituen, multzokatuak, etxadietan antolatutako hilobiak; hala, haien artean 'kalez kale' ibil daiteke lasai, eta errazagoa egiten da aldi berean hango monumetuak ikusiz gozatzea.

José de Goicoa Barcáiztegui arkitektoak marraztu zuen nekropoli berri hura, eta Juan Muguerza obra-maisuak lagundu zion gauzatzen. Francisco Eguren izan zen hargintzako lanen buru (harresia). Jacinto Matheu Iroster Arte eta Ofizioetako eskolako irakaslea kontratatu zuten programa ikonografikoa tailatzeko.

Lehen lurperatzea 1878ko abuztuaren 12an egin zen, eta 1879ko apirilaren 30ean, aldiz, San Martingo hilerritik gorpuen arrastoak hara aldatu zituzten modu solemnean. 1887ko ekainaren 18 arte ez ziren San Bartolomeokoak eraman. Garai hartako prentsari ageri da bi lekualdatzeen pres-takuntza nolakoa izan zen, eta zer nolako giro solemnean egin ziren.

Nekropolia ez dago santu jakin baten izenpean. Hilerri berriak antzina lur haietan zegoen Polloe-Enea baserriaren izena hartu zuen

Polloe eraikitzea planifikatu zenetik, udalak hilerri hartara gorpuk nola eramango ziren arautu behar izan zuen. Mende haren erdialdean agertu ziren ehorzketa-gurdiak, eta une hartan haien egoera arautu egin zuen Udalak; handik aurrera, Udalak esleipendun bakar bati esleituko zizkion



Santa María 139

zerbitzuak, lehiaketa baten bidez, eta gurdien ekipamenduari buruzko araudi bat ere ezarri zuen. Lau kategoria ezarri ziren, eta ornamentazioa haien arabera izango zen.

Berehala bete ziren nekropoli modernoak okupatzeko aurreikusitako igurikapenak. XIX. mendearen azken hamarkadan, jabetzako hilobi gehiago behar zirela ohartu ziren. Hala, hilerri zibileko espazioa erabiltzea erabaki zen, bai eta hobi komunak libratzea eta zuhaitzak mozteak ere, berehala eraiki beharreko kaperetarako espazio librea uzteko. Kaperak zinez ziren lerdinak, eta bost hobiren tokia betetzen zuten.

Mende aldametarekin, baina, arazoak bere horretan iraun zuen. Horregatik, handitze lan txiki bat egin zen. Batetik, San Pedro kalea, hasierako plangintzan agertzen ez zena, eta, bestetik, Kontzesio Taldea izenekoak. 1923rako, berri, kurbaren inflexio puntuaren aurreko espazioa urbanizatzea dago aurreikusita. Hilerria sustatu zuten zinegotzien garaiko santu izendegiak eman ziren izena kaleei: Alfredo Camioren tokian San Alfredo, Nikolas Goitiaren tokian San Nikolas, etab. 30eko hamarkadan, erabat desagertu zen hilerri zibilaren eta katolikoaren arteko hesia, eta ipar-ekialderantz bete zen espazioa.

40ko hamarkadaz eta hurrengoez gero, kurbari jarraituz egin dira zabaltze lanak, eta dagoeneko ezin da ikusi Kapera zuzenean.

XXI. mendearen hasieran, horma hobien eta katakonben espazio bat proiektatu zen. Ordura arte ikusitakoan aldaketa bat egin zen Polloen: berdeguneek estaltzen dituzte ehorzketarako baliatutako lurpeko espazioak.

01.

Polloe plazatxo

📍 Polloe plazatxo

Urtea: 1879-1905

Arkitektoa: José de Goicoa

Eskultorea: Jacinto Mateu



José de Goicoa arkitektoak, Alde Zaharrean zuen bulegotik eta udalean zuen kabinetetik, jo eta su ekin zion bere jaioterriz hiriaren antolakuntza eta hirigintza-garapena bultzatzeari.

Madrilen eskuratu zuen arkitekto titulua 1869an, eta udal arkitekto laguntzaile izateko lanpostu hutsa berretzat eskatu zuen 1870eko maiatzean. Lanpostu haren jabe izan zen 1897tik 1909an erretiratu zen arte. 1911n hil zen.

1888an Bartzelonan egin zen Erakusketa Unibertsalean, Goikoak saria jaso zuen Donostiako Udalaren izenean, udal hura hirigintza-garapenaren alorrean egiten ari zen lan itzelagatik. Garai hartarako, ibilbide honetan sartzen diren monumentu batzuk eraikita zeuden, eta kapera eraikitzen amaitzen ari ziren.

Itxitura-harresia Elorrioko Francisco Eguren Muguruzak arginak egin zuen. Donostian bizi zen 1867tik, eta Polloetik gertu zuen hargintza-biltegia. Polloen altxatu ziren hileta-monumentuetako asko haren tailerretik atera ziren. 1903an hil zenean, haren emaztea egin zen negozioaren buru, eta gerora, Bonifacio Eguren Gárate semeak hartu zuen ardura. 1932an hil zen.

Itxitura-harresi nagusiak gorputz bakarra du, eta kaperak gorputz horren parte da; kapera hori erdiguneko posizioan dago, eta mediana gisa, eraikin batzuk ditu alboetan. Eraikin haietan zeuden hilerriak bete behar zuen eginkizunerako beharrezko espazioak: Proiektuaren arabera, beheko solairuetan autopsia-gelak eta behaketarako biltegia jartzeko asmoa zegoen, eta goiko solairuetan biziko ziren parrokoa eta zaindaria.

Hilerrira sartzeko, puntu erdiko bi arku zeharkatu behar ziren, ezkerrean, edo sarrerako arku pasatu San Bizente kalera iristeko; halaber, eskuinean, San Sebastián. Kalera sartzeko arku zegoen. Bi santoral horietan hiriko parrokiarik zaharrena agertzen da, eta hiriko patroia. San Bizente arkuaren ezkerrean dagoen eraikina 1886an eraiki zuten, eta hara eraman zuten autopsia-gela, hileta-biltegia eta medikuaren gela; be-



raz, denbora gutxi eman zuten lehenagoko tokian. Gaur egun ikusten dugun eraikuntza 1905eko erreformaren emaitza da. Aurrealde nagusiaren gainean Omega ikurrak bere destinoari buruz hitz egiten digu. 1894ean kapilauaren kargua sortzen da eta hurrengo urtean bere etxebizitza eraikitzen da, San Sebastian arkuaren eskubira.

Kaperara sartzeko arkuaren tinpanoak eta hilerria sartzeko arkuetako tinpanoek barruko espazioarekin bat datozen ikonoak dauzkate. Udalak Jacinto Mateu eskultore mallorcarrari eman zion taila zuzentzeko enkargua. Mateu 1873an iritsi zen Donostiara, eta 1888an Arteen eta Ofizioen Eskolako irakasle izendatu zuten, Huste, Modelatze eta Taila ikasgairako.

Kaperaren kanpoaldera eraman zen eukaristia-egintza gogora ekartzeko irudia: Pazko Bildoak sakrifikatu egin behar da -Kristo-, eta horregatik, galburuez eta mahats-mordoz inguratzeko, haren gorputz eta odola adierazteko. Azken erreferentzia hori berriro agertzen da hilerria sartzeko arkuen frontoietan, zain gauden bitartean lagunduko gaituzten elementuekin lotuta: Alderantziz dagoen argi-zuziak ilunpeetako mundua argizatzen digu eta koroa, barnean ernamuntzen den fruitu itxi batez egina, itxaropenaren irudi da; denbora horretan zehar, itxaropen hori Berpizkundean gauzatzen da. Itxaroten dugun uneak iritsi behar du, eta horixe adierazten digu hil-oihalak, gorputzarengandik aske dagoela.

Estilo erromaniko bakuna baliatu da kaperara sartzeko arkua apaintzeko, lehen kristauen ikonografiarekin lotuta. Bi sarreretan igoera-sentipena

eman nahi izan da, berpizkundearen ideien erreko zerbait.

Harresi nagusi horrekiko angeluan, katoliko ez diren hilerriko sarrera dago. Haren atarirako, arte klasikoaren zorrozatasuna baliatu da.

1882an, hilerria sartzeko arkuetan Agustín Iturriaga presbitero ospetsu eta euskal idazleak Hernaniko antzinako hilerrian zizelkarazi zuen inskripzioa jar zedin proposatu zuen Lore Jokoen udalbatzak. Honaino datozen guztiei gogoeta egitera deitzen dien *Memento Mori* bat da:

“Laster esango da zuengatik, esaten oi dana orain gugatik: ¡jilll ziran!!”

Gaur egun Polloeko hilerrian zipres altuak daude, baina hasieran ez zuen itxura bera. Proiektuan banana-zuhaitz moduko bat jartzea erabaki zen, Boulevard-eko Zumardian aurki dezakegun zuhaitz mota bera, hain zuzen ere. Izan ere, arestian aipatu dugun moduan, Polloe “*era modernoan egindako hilerria*” zen. 1896ko azaroaren 25ean Udalak zuhaitz-espezie hori ordezkatu eta zipresak jartzea erabaki zuen, zuhaitz haiek hilobi asko kaltetzen ari baitziren. El Fierista egunkariak pozez hartu zuen berria, zipresak “*...toki hartarako egokiago*” zirela esanez. Hala eta guztiz ere, XX. mendeko lehen urteetara arte ez zituzten zuhaitzak aldatu.

02.

Azqueta panteoia

📍 San Bizente 37-41

Urtea: 1922

Jabea eta Sustatzailea: Juan Florentín de Azqueta y Múgica

Eskultorea: Quintín de Torre eta Ricardo de Elorriaga

👤 Juan Florentín de Azqueta y Múgica


Jarduera: Ingenieru eta merkantzi-ontzi kapitain

Jaiotza eta heriotza data: 1844-1930

FORMA KLASIKOAK, monumentu gisa sortuak, arkitektura aldetik zein eskultura aldetik: Ertz bizidun bloke prismatiko handiekin osatutako arkitektura multzoa da, eta horrek ematen dio itxura zorrotz eta monumental hori. Belauniko dagoen eskultura-irudian, artistak *Ofrenda de la corona* titulua emandakoa, eskultore bilbotarrak tunikaren bolumen handiarekin jolas egingen du; berebiziko eskultura bat eskaintzen digu, monumentuaren gainerakoarekin harmonia gordetzen duena.

Eskultura egiteko erabili diren materialen joko kromatikoak, halaber, eszenatoki gisako espazio bat sortu du, eta han, irudiak du protagonismo osoa. Mutrikuko kareharri grisaren bitartez, hildakoa hartzen duen lur azpiko mundu iluna irudikatzen da. Ama Birjina, Ama Dolorosa gisa agertzen dena, marmol zuriz egina dago, berria den zerbait hasten dela adierazteko. Haren irudia harri gorriaren gainean nabarmentzen da, eta gurutzearen sinboloan jasotzen da itxaropena.

Ikur gisa, eszenaren alboetan aurpegi hegodunak ageri dira, hots, aingeruaren irudiarekin lotutako elementuak.





Juan Florentín de Azqueta y Múgica, *1844 Bermeo +1930 San Sebastián, ingeniaria eta merkantzia-ontzietako kapitaina. Eugenia Monasterioren ezkondu, eta 10 seme-alaba izan zituzten.

1887an iritsi zen Donostiara, MacAndrews konpainiaren kontsignatario gisa, Donostia eta Pasaiaiko porturako, eta bere izena edukiko zuen ontzi-konpainia sortu zuen. 1894an merkataritza ontzidietako kapitain izendatu zuten, eta Gipuzkoako Itsas Ligako parte izan zen. 1915ean seme-alabei utzi zizkien ontziekien lotutako negozioak. Habanako portuan sartu zen lehen lurrunezko itsasontziaren kapitaina izan omen zen.

Juan Florentín erregidore izan zen 1890-1893 bitartean. Hain zuzen ere, zinegotzi zela -1901ean- Urumeako ibai-zerbitzua inauguratu zuen. Seme-etako batzuk ere udalean parte hartuko zuten: Josék (1909-1911), Horaciok (1912-1917) eta Ángelek (1924-1925).

Florentino semeak, aldiz, Donostiako trenbide elektrikoarekin izan zuen lotura. 1914an *Vildósola-Azqueta* sozietatea eratu zuen, motozikleten negozioan arituko zena. Motoziklismoko zale amorratua zen, eta Real Moto-Club Español elkarrekin antolatutako lasterketetan parte hartu zuen. Hala, Espainiako lehen automobil fabriketako bat sortu zuen. 1958an Trenbideen Ustiapenerako Sozietatearen zuzendari zen, eta justu orduantxe, martxoaren 1ean, Donostia-Hernani linea kendu zen. Hil zen urtean, Real Sociedad futbol klubeko presidente zen.

Florentino argazkilaritzaren maitale zen, eta ilobarekin partekatzen zuen zaletasun hura, José Manuel Aizpúrua Azqueta arkitektoarekin.

Juan Florentínen beste seme batek, Bideetako Ingeniari zen Horaciok, Amarako Zabaltzea proiektatu zuen 1915ean, José Gurrutxaga arkitektoarekin batera. Halaber, Loiolako Lorategi Hirirako



proiektuaren txostena idatzi zuen, eta Donostiako Paseo Berriarena, besteak beste. 1919ko urtarriaren 9an, Obra Publikoetako zuzendari nagusi izendatu zuten lehen aldiz. Beste bi alditan ere itzuli zen kargu hartara. Beste batzuekin batera, Trenbide eta Tranbien Ustiapenerako Sozietatea sortu zuen, linea hauek fusionatu eta haiek usatzea helburuzuen: Donostiatik mugara doana, hots, 'Topo' izenez ezagutzen dena, Donostiatik Hernanirakoa, Irunetik Hondarribirakoa eta Andoaindik Iruña eta Lasartera doana. Donostiako Tranbien Sozietatea ere sortu zuen. 1922an *Fosfatos de Logrosán* sozietate anonimoa sortu zuten bazkideetako bat izan zen, Salamancako Hijos de Mirat enpresarekin batera. Cacereseko meatzeak ziren Espainiako fosforita meatoki garrantzitsuenak. Sozietate hura Donostian sortu zen hainbat bazkideren artean: besteak beste, Leopoldo Lewin, *Azucarera del Ebro S.A.* enpresaren sustatzaile eta aholkularia.

Quintín de Torreren lan hau Madrilgo Alcalá kalean zegoen antzinako Banco de Bilbao-rako egin behar izan zituen ikaragarritzko eskulturekin batera etorri zen..

03.

Cortázar panteoia


📍 San Bizente 48 - 50 - 52

Urtea: 1882

Jabea: Cortázar-Echave familia

Arkitektoa: Antonio Cortázar (1823-1884)

👤 Cortázar-Echave familia



Antonio Cortázar y Gorría. San Fernandoko Arte Ederren Arkitektura Eskola Berriko lehenengo promozioiko donostiar arkitekto nabarmena, Gipuzkoako Bideetako Zuzendari Probintziala izan zen. Bere lanen artean azpimarratzekoak dira honako hauek: hiriko lehenengo harrizko zubia, *Santa Katalinako Zubia* eta *Cortázar Zabalgunea* izenez ezaguna dena, hiriko harresiak eraitsi osteko lehenengo zabalgunea eta Europako hirigintza modernoaren erreferentea.

Cortázar nabarmentzekoa da, halaber, panteoi hone-tan lurperatuta dauden arkitekto ezagunen familiako buru izateagatik. Tartean daude, besteak beste, **Ramón Cortázar Urruzola** (+1945) semea edo **Manuel Echave Zalacaín** (+1908) suhia. Bi horiek ondare arkitektoniko handia utzi zioten Donostia hiriri. Aipatzekoak dira hainbat eraikin berezi; esaterako: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, La Perlako garai bateko bainuetxea eta Errege-erreginen Bainuetxea, Arte Ederrak (Eusko Jaurlaritzak 2015/04/04an KIO izendatua), Hiribidea-ren eta Hondarribia, San Martzial eta Getaria kaleen arteko multzo arkitektonikoa, Urolako Tren Geltoki goratuak, Artzain Onaren Katedrala eta bere orratz lanezko dorrea, bai eta gaur egun Polloeko hilerrian dauden panteoi asko eta asko ere.

Familia horrek egindako lan eskergaren aitorten moduan, hiriak kale bat eskaini dio familiari Amarako zabalgunean; hain zuzen, *Cortázar Arkitektoen kalea* izenekoa.




Polloen *"Arkitektoen panteoia"* izenez da ezaguna, eta Antonio Cortázarrek diseinatu zuen 1882ko otsailaren 6an. Hilobi monumentu bat da, harrerarriz egindakoa, eta arkitekto ofizioa ispatatzen duten elementu ugari ditu. Programa ikonografiko aberatsa da, gurutzeak hiru bider gainjarrita eta planoen segida hirukoitzarekin, Hirutasun Santuari erreferentzia eginez. Horiek guztiek izaera bertikaleko konposizioa eskaintzen dute, bertan lurperatutako hildakoen arima Jainkoarengana igotzearen sinbolo gisa.

Lehen planoan, beheko aldean, mundu lurtarra ageri da irudikatuta. Hor ageri da lehenengo gurutzea, greziar gurutzearen itxurako solairua duen eraikuntza moduan, eta bertako gurutzaduratik ateratzen da hilobi zutabea. Beraz, gurutzea lurrean adierazten du, eliza kristaua, eta oinarri horren gainean altxatzen da monumentua.

Zutabea, forma laukizuzenekoa, monumentuaren nukleo nagusia du. Aurrealde nagusian, idazkun hau ageri da harrian idatzita: *"Antonio Cortázarren eta seme-alaben familiaren jabetzako"*; beste hiru alboak, berriz, marmol zurizko hiru plakek estalita daude, piztuta eta behera begira dauden hiru zuzi pareekin apainduta, iraungitzen ari den bizitzaren sinbolo, eta amaiera adierazten duen omega greziar sinboloarekin.

Zutabearen angeluak enbor lauzko zutabeekin daude apainduta; hots, hildakoak atseden hartzen duten toki sakratua babesteko sinbolo arkitektonikoarekin. Eta, era horretan, bizitza lurtarretik heriotzarako jauzian bere babesa ziurtatuko da.

Entablamendua, berriz, hiru platabandako arkitrabe batek osatzen du, zutabe horien gainean baino markaturik ez dagoena, eta friso lau bat du, lau ertzetan izan ezik; hor, akanto hosto batzuk daude zizelkatuta, angeluan, bizitzako probak gainditzearen sinboloak.



Erlaitzean, arku txiki apaingarrien segida batek babesa ematen die harrizko erroseta batzuei, eta animalia formako lau gargolak husten dituzte urez isurkiak.

Bigarren plano batean, bizitzatik heriotzarako jauzia ageri da irudikatuta. Bertan ageri da bigarren gurutzea; berriz ere, greziar gurutzearen itxurako solairua duen eraikuntza baten bidez. Besoak puntu erdiko lau arkutan amaitzen dira, eta han, horma hobi batzuk daude, errauts kutxatilekin. Hilobi horretan atseden hartzen ari diren hildakoen arimak gordetzen dituzten kutxatilik dira. Hil Oihal Santuak babesten ditu, Zeruratzearen eta Azken Judizioaren zain dauden bitartean.

Azkenik, hirugarren planoan, igokundea amaitzeko, bigarren gurutzearen gurutzaduratik hirugarren gurutzea ateratzen da: lirio loreko sekulako gurutze bat da, Jesukristoren eta Andre Mariaren sinbolo.

Era horretan, arkitektura baliatuz, eta modu sinboliko zein samurrean, bizitzatik heriotzarako igokundea eta Piztueragatiko itxaropena irudikatzea lortu du Antonio Cortázarrek.

04.

Luzuriaga kaperak

📍 San Martin 2 - 8

Urtea: 1879

Jabea eta Sustatzailea: Norberto Antón de Luzuriaga

Arkitektoa: Antonio Cortázar

Estilo arkitektonikoa: Neorromanikoa

👤 Claudio Antón de Luzuriaga

Jarduera: Diplomazialari, politikari eta abokatu

Jaiotza eta heriotza data: 1792-1874

NEORROMANIKOA. Kaperak honek ezin hobeto erakusten du mugimendu erromantikoak zer norako joera izan zuen elementu fantastiko eta alegorikoak baliatzeko. Ilunpean munduan dago gure izatearen ondoren gelditzen dena, eta mundu hori argitzen dute, etengabe, argi-zuziek. Saguzar bikote bat dago zelatan, zaindari, eta ilunpean gidatzen gaituzte. Kapiteletan paradisua agertzen da, eta inpostaren lerroak bereizten ditu ilunpea eta berpizkundearen ondoren ezagutuko dugun Loriazko mundua. Berpizkundea irudikatzen, estalkiaren gainean dagoen gurutzearen irudia agertzen zaigu. Bi gargola txiki daude, alboetako fatxadetan ertzetan, eta adi-adi daude, zelatan.

Kolore anil eta granatezko beirate beruneztatu eta xumeak ere ageri zaizkigu. Kaperaren perimetroan, puntadun arkuak dituen burdinazko hesi bat dago, eta oraindik ere gelditzen da Paradisuaren ikur den ananaren bat edo beste, karelean zehar.

Hesian A eta L hizkiak ageri dira, hots, Antón de Luzuriagaren inizialak.





[Claudio Antón de Luzuriaga](#) *1792 Soto de Cameros (Rioja) +1874 Donostia. [Magdalena Ardenales de Zugastire](#)kin ezkondu zen (*1806 Pasajes San Juan +1880 Donostia). Mandasko Dukearen familiari oso lotua zegoen, haien abokatu eta laguna baitzen. Baldomero Esparteroren segizioan, ibilbide politiko garrantzitsua izan zuen; Grazia eta Justiziako ministro izatera iritsi zen, eta Estatuko ministro ere bai. Hil zenean, Justizia Epaitegi Goreneko Presidente Erretiratu zela aipatu zuten eskalan. 1821ean hasi zuen ibilbide judiziala, Donostiako epaile modura. Gure historian, beti oroituko dugu nolako grinez defendatu zuen aduana Ebrotik itsasertzera aldatzea. Seme bat izan zuten [Norberto Antón de Luzuriaga y Ardenales](#) +1884 Biarritz inguruan. Abokatua. Claudio eta Magdalena Antón de Luzuriaga Mendoza izan ziren haren seme-alabak. Claudio Germana Auguiot Abadie-rekin ezkondu zen, eta alaba bat izan zuten, Leonor *1916 Donostia +2003artzelona. Leonor, halaber, José Gómez de las Barcnas, Rivera de Adaja-kobiz kondearekin ezkondu zen, eta bi seme izan zituzten, baina ondorengorik gabe hil ziren biak.

Claudio Antón de Luzuriaga izan zen San Bartolomeko hilerritik Polloekora aldatu zuten hildakoetako bat. Haren seme Norberto izan zen hilerri berrian kapera bat eraiki zedin eskatu zuen bigarren partikularra. Norbertok, testamentuan, hamar mila pezeta eman zizkion Donostiako hiriari, diru hark urtean emango zituen interesekin atezainari urtean hirurogei pezeta ordaindu, eta hark familiaren panteoia zaindu zezan. Gelditzen zen diruarekin, kaperak behar zituen konponketak egitea proposatu zuen.



05.

Zubietako batzordeari monumentua - 1813

📍 Polloeko sarrera nagusia

Urtea: 1879

Sustatzailea: Donostiako Udala

Arkitektoa: José de Goicoa

Egilea: José María Illaro

Estilo arkitektonikoa: Klasizismoa

KLASIZISMOA. Estilo klasikoak zorroztasuna ematen dio monumentuari, eta gainera, Udalak hala eskatuta, Murtrikuko kareharri grisez egina dago. Izan ere, ia erabat erre zuten hiri bat berpizteko lan egin zutenen oroigarri da monumentua. Ondorengo belaunaldi guztientzat hurbileko oroimen bat izatea zen asmoa, eta horregatik ageri dira haizeak dantzan jartzen dituen zintak, ez ordea zurrunak edo zimelak.

1813ko ekainean, Frantziako tropak erretiratzeko ari ziren, Gasteizen porrot egin ostean. Wellingtongo Dukearen agindupean, Portugal eta Ingalaterrako armadak atzetik joan zitzaizkien, eta horregatik, Donostian gotortzea erabaki zuten frantziarrek. Bi hilabetetan zehar, Donostia setiatuta egongo zen eta, azkenean, 1813ko abuztuaren 31n, harresietan arrakala bat ireki eta sartzea lortu zuten; gogor egin zioten hiriarri eraso, eta ia osorik erre zuten, kale bat izan ezik, Abuztuaren 31 kalea, egun beltz hura gogora ekartzen duena.





Irailaren 8 eta 9an, “*patrizio entzutetsu*” talde bat Zubietako Aizpurua baserrian bildu zen, Zubietako Batzordea delakoan, eta Donostia berreraikitzeke urratsak adostu zituzten. Gizon haiei egin zien omenaldia udalak, 1879an, monumentu honen bitartez.

Urtero, abuztuaren 31ean, izen hori duen kalean, ekitaldi bat egiten da egun hartako biktimak gogoratzeko. Argi elektrikoak itzaltzen dira, eta kanalak piztu.

1879an, plaka oroigarriaren grabatzailea nahastu egin zen, bileraren data jartzerakoan. Arbela aldatu eta marmolezkoa jarri zutenean, akatsa ez zen zuzendu; gainera, beste akats bat gehitu zitzaion, mausoleoa egin zen urtea adierazterakoan: MDCCCXXX agertzen den tokian, MDCCCLXXX behar luke. Gaur egun zuzenduta dago.

“...halako monumentu batek, gainera, lagundu egingo du gizon haiek irabazi zuten esker on eta miresmena aitortzen; ez da salbuespenik izango, eredu baitira, baita hona datozen kanpotar eta atzerritarrentzat ere.” Nicolás de Soraluce: “Mausoleo bat Zubietako Heroientzako”. [El Urumea, 1879ko maiatzaren 25a]



06.

Zozaya panteoia

KLASIZISMOA. Oinarri altu bat, itxura klasikokoa, eta inguruan ehorzketa-artearenak diren apaingarriak; hala nola alderantziz dagoen zuzia, girlandak edo hil-oihala. Horrek guztiak oinarria eratzen du, eta gainean *Erl-jioaren* irudia dago, 1891ean, Jacinto Mateu eskultoreak egindakoa, tunika zabal batez estalia dagoen emakume gisa irudikatua. Gaur egun gurutzearen errematea falta zaio, hots, esku artean duen zutoinarena. Bi zokalo trinko eta altu daude bi hilobien alboetan, eta babesleku moduko bat sortzen dute bien artean.

📍 San Ignazio 33 - 35 / San Martin 34 - 36

Urtea: 1889

Jabea eta Sustatzailea: Martín Zozaya Mendiverri

Sustatzailea: Martín Zozaya

Lan-maisua: José María Múgica

Eskultorea: Jacinto Mateu Iroster

Estilo arkitektonikoa: Klasizismoa

👤 Martín Zozaya Mendiverri

Jarduera: Politikari eta jabe

Jaiotza eta heriotza data: 1836-1904





Martín Zozoya Mendiverri, (*1836 Garzain (Nafarroa) +1904 Donostia). **Domitila Laredorekin** ezkondu zen. Martín baztandarra zen, eta Kubara emigratu zuen. Hantxe jaio ziren alabak; **Domitila**, Remedios hirian, 1869an eta **Carmen** eta **Martina** aldiz Caibarién-en, 1871 eta 1872an. Lur-jabe aberats bat izan zen, eta nekazaritzako jabetzak zituen. Ibilbide politikoa ere egin zuen, eta Gortee-tako Diputatu izateko hautatu zuten jarraian 1884 eta 1895eko hauteskunde orokorretan, Kubako Santa Clara eta Remedios barrutietan.

Carmen alaba oraindik ere Caibarién-eko ongile gisa oroitzen dute, eta hiri hartan busto bat dago bere oroimenean. 21 urterekin iritsi zen Donostiara, baina ez zuen bere jaiotzako hiria ahaztu. Sentimendu hura testamentuan ere agertu zuen; izan ere, hainbat dohaintza utzi zituen hiri hartarako, esate baterako Carmenen izena duen Caibariéneko Ospitalea eraikitzeko kontribuzioa, edo Jesusen Bihotza Eskolari egindakoa. Habanan dagoen Jesusen Bihotza eta Loiolako San Ignazioren Katedralaren obretan ere parte hartu zuen. Comillaseko (Kantabria) Mintegiaren Pabilioi Txikia eta Elizondoko ospitalea (Nafarroan) ere Carmenen karitateari esker eginak dira.



1880. urtetik aurrera agertu ziren Donostian. Irakurtzekoa da oinordeko aberats hark, 33 urterekin, nolako inpresioa egin zion garai hartako kazetari salamancar bati:

« Hemen bizi da, Kontxan duen txaletean, Maria (Carmen) Zozaya andre agurgarria, Benjumearen alarguna. Gaixoa bezain diruduna da, eta nahi duen guzti-guztia dauka. Egunero loredun kotxetxo batean eramaten dute, ilobak eskaile-ra modernista batetik igotzen zaizkio kotxeko eserlekura; bi enbor ederrek eramaten dute arrastan, barruan txakurtxo batzuk daramatzala, eta ibilaldiak iraun bitartean, Zozaya andrea kotxe barruan lasai eta atsedean goxoan egon dadin, sarezko ohe bat dago. Horregatik, arratsaldero ordu berean, aspertuta egon ohi den atzerritar mordo bat hantxe bildu ohi da, begira egoteko, edozerekin entretenitzen baitira. » [El Castellano, 1904ko abuztuaren 2an]



07.

Guereca kapera

Kapera NEOGOTIKOA, bereziki bakuna den bertsio baten barruan. Kutsu erromanikoa duten elementuak ere baditu. Santuen galeria eder bat agertzen zaigu beruneztatutako beirategi multzo honetan.

📍 San Prudentzio 37 - 41

Urtea: 1896

Jabea eta Sustatzailea: Ramón Antonio Guereca Beldarrain

Lan-maisua: Juan Muguerza

Egilea: Altuna

Beirateak: Vitrolux S.A. Irún

Estilo arkitektonikoa: Neogotikoa

👤 Ramón Antonio Guereca Beldarrain

Jarduera: Eskribau

Jaiotza eta heriotza data: 1829-1903





[Ramón Antonio Guereca Beldarrain](#) (*1829 Zaurutz +1903 Donostia). [Gregoria Buenechea Apaolazarekin](#) ezkondu zen (*1840 Donostia +1923 Donostia).

Kapera horren sortzailea 1856. urtean iritsi zen Donostiara. Handik bi urtetara, eskribau izendatu zuten; hala, 40 eta 50eko hamarkadetan Prohibitziako Aldundi idazkari izan zen Ramón de Guereca bere aitaren ibilbidearekin jarraitu zuen. Tarte hartan, erakundeetatik euskara hedatzeaz arduratu zen bereziki.

Hiriko harresiak eraitsi eta hiria zabaldu ondoren etorri ziren hirigintza-operazioetan parte hartu zuen. 1885. urtean Udalarekin harremanetan jarri zen, hark Amaran zituen lursail batzuk utz zitzaizkizela bat eraikitzeko. 1882an, Guereca Buenechea familiak Gipuzkoa Plazako 4.-ean zuen egoitza. Han ageri da Marcial anaia ere, eta lagundu egin zion haren *La Deliciosa* gozotegi ospetsua sortzen. 1903an hil zenean, Miramar 2an bizi ziren.

[Modesta](#) alaba [Wenceslao Aguirrebengoa Usabiaga](#) (*1868/9 Donostia +1937 Donostia) ingeniariarekin ezkondu zen. Lanean egin zituen gauzen artean, aipatzekoa da Tabako Lantegia-
ren eraikin eraiki zuela ingeniari-
ritza-buru gisa, eta hango zuzendari izatera iritsi zela. Hurrengo belaunaldian, bi ingeniari-familia elkartu ziren: María Aguirrebengoa Guereca Peironcely leinuko kide batekin ezkondu zen, Ramón Peironcely y Puig de la Bellacasarekin. Haren aitona, Manuel Peironcely, egungo Igeldoko itsasargiaren egilea, ingeniarien leinu baten hastapena izan zen; leinu hori gaur egunera arte iritsi da, [Ramón Peironcely Aguirrebengoa](#)ren bitartez (*1929 +2017). Haren ibilbide profesionala lotuta egon zen, besteak beste, Victorio Luzuriaga eta Ramón Vizcaíno enpresa handiei. Turismoa zinegotzia izan zen 1962tik 1964ra, eta Turismo Zentroko (CAT) presidenteordea, 1977. urtera arte. Postu horietan zegoela



sortu zituen, hain zuzen, su artifizialen nazioarteko lehiaketa edo Jazzaldia, arrakasta handiko jaialdiak biak ere Donostiako udetan. Suak badian kokatutako plataforma batetik botatzeko proposamen interesagarria egin zuen, eta, zioenez, Bilbon dagoeneko egina izango zuten, gure hondartzak eskainitako paraje ederra izango balute. Hala, Urrezko Danborra entregatzea ere proposatu zuen, 1967an. Santa Klara Uharteko Lagunen Elkar-
teak *Ramón Peironcely etorbidea* izena jarri dio kai txikitik farora igotzen den ibilbideari. Elkar-
te hori ere 1967an sortu zen, eta Ramon izan zen haren lehen presidentea.

Ramón Antonio de Guereca Beldarrainek 1902an sustatu zuen ekimen bati esker, etorkizuneko María Cristina Hotela ez zen egungo Cervantes plazan eraiki. Izan ere, proiektu hura gauzatu izan balitz, Guerecaren familiak Miramar kalean zuen egoitza itsasorako bistarik gabe geldituko zen. Ramón Peironcely Puig de la Bellacasa, bere arrebaren bitartez, Pedro Muguruza arkitektoaren koinatu zen; hura izan zen Erorien Harana egin zuena, eta gugandik hurbilago dauden Zubietakaleko 34. etxea, eta Urgull Mendiaren gainean dagoen Jesusen Bihotzaren zati arkitektonikoa ere bai.

08.

Bilintx

EKLEKTIZISMOA. José de Goicoa udal arkitektoak hileta-monumentu bat proiektatu zuen Indalecio Bizkarrondo "Bilintx" euskal poetaren oroimenean. Aipatzekoa da omendutako pertsonaren irudia, apaingarrien gainetik. Ezizena harridura ikurren artean agertzen da, eta hala, banatu egiten da epitafioaren eta Easoko bardoaren busto dominadunaren artean dagoen espazioa.

Indalecio Bizkarrondo "Bilintx" bertsolari eta poeta erromantikoa (*1831 Donostia +1876 Donostia), San Sebastian egunean Arratsaineko bateria karlistek jaurtitako granada baten ondorioz hil zen, Antzoki Zaharrean bere atezain postuan zegoela jo baitzuen, Kale Nagusian. Berriemaile ere izan zen, Donostian, *La Correspondencia Musical* izeneko egunkarian.

1882ko azaroan Ponsol zinegotziaren eskaera onartu zen, haren gorpua San Bartolomeko hilerritik Polloera alda zedin, eta Bilintxen omenez hilobi "*apal baina duin*"

📍 San Prudentzio 72

Urtea: 1885

Sustatzailea: Donostiako Udala

Arkitektoa: José de Goicoa

Estilo arkitektonikoa: Eklektizismoa

👤 Indalecio Bizkarrondo "Bilintx"

Jarduera: Bertsolari eta olerkaria

Jaiotza eta heriotza data: 1831-1876





bat jartzeko konpromisoa hartu zuten. Victoriano Iraola zinegotzi, erretratugile eta ilustratzaileak buruz egin zuen erretratu eredua, gaur ikusten dugun domina egiteko -garaiko berrien arabera, "Bilintx"-i ez zitzaizkion bere erretratuak gusatzatzen-. Udalak zizelkatze-lana ordaindu zuen, eta epitafioaren inguruan dauden kapitulak, 175 pezeta. Ezezaguna da bi lanen egilea. Hilobia eta mausoleoko harria Domingo Calzacorta harginak egin zuen, eta 410 pezeta jaso zituen ordaintetan; Miguel Orbegoza errementariak berriz, 186 pezeta jaso zituen irudia inguratzen zuen eta gaur egun desagertua dagoen burdinazko hesiarengatik. 1885eko martxoaren 2an gaur egun irakur dezakegun inskripzioa bakarrik falta zen ordaintze-ko, handik egun gutxira Lore Jokoen Udalbatzak idatzi zuena. *ALTUNA* sinadura duen xafla gerora egindako eraberritze batena izan liteke.

Indalecio hil eta gutxira, Manuel Curros Enriquez poeta galiziarrek gaztelaniazko olerki hunkigarri bat eskaini zion, *La canción de Vilinch* izenekoa.

1883ko uztailaren 6an, Madrilgo Retiroko lorategietan, Antonio Peña y Goñi musika-kritikari eta konpositore donostiarren *Recuerdo a Vilinch* rapsodia txikia entzun zen, eta txalo ugari jaso zuen. 21ean, Bilintxen heriotzaren zazpigarren urteurrenean, donostiarrek Boulevardko zumardian entzun ahal izan zuten.

Epitafio

"Gure Donostia kutunean zure bertsoak entzun genituenok esan dezakegu Jaungoikoaren errukiaz kantatzera joan zinenetik, zerua bera atseginagoa dela".



09.

Antonio Arzac Alberdi

KLASIZISMOA lerroetan. Sinesmen bat ekartzen digu gogora, Kristoren gurutzea Adanen hilobiaren gainean altxatzen zela, eta horregatik ageri dira buru-hezurra eta tibiai Kalbarioaren gurutzearen azpian. Azken obrak eduki sinboliko gehiago du hasierako proiektuak baino.

San Lorentzo 8

Urtea: 1879

Jabea eta Sustatzailea: Antonio Arzac Alberdi

Arkitektoa: José de Goicoa

Estilo arkitektonikoa: Klasizismoa

Antonio Arzac Alberdi

Jarduera: Olerkari, hizlari eta artikulugile

Jaiotza eta heriotza data: 1855-1904





Antonio Arzac Alberdi (*1855 Donostia +1904 Donostia). 1884. urtean Antonio Arzacek Polloe-rako sarreran dauden arkuetan agertzen den inskripzioa eskatu zuen. Gainera, 1879an, hilobi bat erosi nahi izan zuen lehena izan zen, eta bere monumentuaren planoa aurkeztu zuen, inskripzioarekin batera, berak sinatuta, bere hilarrian jar zezaten. Urte hartan bertan, Arzacek saria jaso zuen Donostian egin ziren lehen Lore Jokoe-tan. Jai haietarako, Iparraldean egindakoak hartu ziren eredu gisa. 1853an, Antoine Th. Abbadie-k euskararen jai haiek sortu zituenean, deialdiek hiru zati eduki ohi zituzten: literatura lehiaketa, musika lehiaketa eta margolaritzakoa. Lehiaki-deek, beren obren bitartez, Euskal Herriko giroa deskribatzen zuten, hango ohiturak, euskara hizkuntza ofizial gisa baliatuz. Lehiaketa haietan ekoizten zena *Euskal-Erria* aldizkariaren bitartez ematen zen ezagutzera; aldizkari hura José Manterolak sortu zuen 1880an eta hura hiltzean, Arzacek berak hartu zuen zuzendaritza. Halaber, aldizkari hartako aleetan, hainbat artikulu argitaratuko ziren Historiaren Errege Akademiako eta Frantziako Arkeologia Sozietateko kideek Euskal Herri osoan zehar egindako irteerei buruz; bi erakunde horietako kide zen Arzac. Musikak ere aurkitu zuen bere organo hedatzailea, Sociedad Coral izenekoa eta gerora Donostiako Orfeoi bihurtuko zena; izan ere, Arzac izan zen sortzaileetako bat, Raimundo Sarriogui bertako musikaria-rekin batera.

Antonio Arzac poeta, hizlari eta artikulugile izan zen, prosan zein bertsotan idazten zuen, eta are gehiago, antzerkiaren generoa ere landu zuen. Kantu eta pianorako konposizioak ere egin zituen, eta euskara zuen adierazpide beti. Udalbatzari hilerri sarrerako arkuen inskripzioa eskatu zionean, Lore Jokoetako idazkari gisa egin zuen, eta kargu hura izan zuen hil arte. Inskripzioa euskaraz zein gaztelaniaz egon zedila eskatu zuen.

Heriotzak atsedentxo bat eman zionean, udal li-

burutegiko (bertako zuzendari zen) funtsak lehen aldiz katalogatzen amaitu ahal izan zuen. Handik gutxira hil zen.

Pentsamendurik sentituenak harridura ikurren bidez adierazten zituen. Baina bere hilobirako, ez zuen bere izena aitortpen-maila goren horretan jarriko, ¡BILINCH! jarrita egin zuenean bezala.

¡.....! Ezagutu zutenek, edo haren obra ezagutzen zutenek erabaki beharko zuten, Arzacen hillobiaren aurrean, harridura ikur horien artean zer adierazi.



10.

Calbetón panteoia

📍 San Lorentzo J - K

Urtea: c. 1915

👤 Fermín Cándido Calbetón Blanchón

Jarduera: Abokatu eta politikari
Jaiotza eta heriotza data: 1853-1919

Joaquín Calbetón Legarra (*1806 Irun +1893 Donostia), eta [Fermín Cándido Calbetón Blanchón](#) semea (*1853 Donostia +1919 Madril), biak, politikari liberalen zirkulu bateko kide izan ziren; XIX. mendean zehar, Donostia hiri moderno eta aberats bihurtu nahi izan zuten, eta Collado-tarren Tertulian hasi ziren horretan, hango kide baitzen Joaquín. Lasala edo Collado-tarrak ez bezala, ez zuten politika merkataritza-jarduera edo enpresekin batera gauzatzen; hauek, batez ere, legelariak ziren.

Joaquín Frantziako Saint Esprit-en jaioa zen [Josefa Blanchón Guillemin](#)-ekin ezkondu zen Donostian 1838an. Joaquínen familia Aran Bailarakoa zen. Ordezko diputatu gisa hasi zuen ibilbidea Kongresuan, 1839an, eta Donostiako alkate izan zen 1842 eta 1846an. Azkenik, Behe Ganberan eserlekua izan zuen berriz 1852-1853 bitartean; Fermín Lasala aita hil zen, eta haren ordezkotza izan zen. Gerora, kolonietan ibilbide judiziala egitea erabaki zuen. 1858 eta 1872 urte bitartean, Audientziako presidente izan zen, hurrenez hurren, Filipinas, Puerto Rico eta batez ere, Habanan. Han, 1877an, *Asociación Benéfica de naturales de las Provincias Vascongadas y Navarra* elkarteak sortu zuen. Euskal indiano ezagunek osatzen duten, eta Begoñako Ama Birjinaren izenpean jarri zuten elkarteak.

Fermín semea ere legelaria zen, eta Kuban hasi zuen ibilbidea, Zuzenbideko katedradun gisa, eta Itsasoz Haraindiko Ministerioan ere aritu zen, Grazia eta Justiziako zuzendari nagusi gisa. Baina semearen ibilbidea politikoagoa eta garrantzitsuagoa izan zen aitarena baino. Habanan ezkondu zen [Emilia Undabeitia eta Ximenez](#)-ekin. 1884tik 1895era diputatu izan zen Gortee-tan, Kubako Matanzas ordezkatzuz lehenik, eta Donostia geroago. 1899tik aurrera senatari izan zen ia etengabe, hil arte. Ibilbide politikoaren gailurrean, Sustapeneko ministro izan zen (1910-1911) eta Ogasuneko ere bai (1918-1919); kargu hori, hain zuzen, hil aurretik bost egun lehenago utzi zuen.

Fermín Calbetónek bi alaba izan zituen. Bietako bat, María Josefa, eta haren bi lehengusu, José eta Alfonso Churruca Calbetón, Zubiria Urizar anai-arrebetako

hirurekin ezkondu ziren; hots, Luis Zubiria Ibarra Bizkaiko Labe Garaien sortzaileetako baten seme-alabekin. Horrenbestez, Calbetón abizena Bizkaiko familiarik entzutetsuenetako batekin lotua dago.

Fermín Calbetónek Madrilen ehorts zezatela erabaki zuen, gorpua Donostiaraino eramateak ekarriko lituzkeen eragozpenak saihesteko; izan ere, bere karguagatik, ibilbide osoan zehar ohore guztiak gorde beharko litzaizkioke. Bost urteren buruan, Madrilgo Almudena hilerritik Polloera ekarri zuten. Azken bidai hartan, emazteak lagunduko zion, 1923an hil baitzen. Fermín Calbetón Blanchón Puyuelo kalean jaio zen. Kalearen izena hura hil eta hamar egunetara aldatu, eta Fermín Calbetón izena jarri zitzaion, Udalbatzaren erabakiz.



11.

Oliván panteoia

San Sebastian 1

Urtea: 1879

Jabea: Federico Oliván Villagrasa

Sustatzailea: José Urquiza

Arkitektoa: José de Goicoa

Estilo arkitektonikoa: Neogotikoa

Federico Oliván Villagrasa

Jarduera: Enpresari

Jaiotza eta heriotza data: 1868-1902

ΝΕΟΓΟΤΙΚΟΑ. *Memento Mori* honek gogora ekar-
tzen digu gure heriotzak ere baduela data, eta ba-
bila segak egindako ebakira heltzen denean hilgo
garela. Gaur, arku bikoitzean idealizatuta dagoen
"loriaren atea" aurrean dutela, erregistroan zain
daude batzuk; halaxe egongo gara noizbait geu
ere. Zain egon behar dugun bitartean, bizitzan
edukitako itxaropenak inguratu egingo du gu har-
tzen gaituen ontzia, eta hala, haren barnean Ber-
pizkundera gertatuko da, mazpilaren fruitua balitz
bezala. Une horretan, gure arimak hegan egingo
du, tximeletek bezala, Gurutzetik datorren salba-
zio-argirantz.





Federico Oliván Villagrasa (*1868 La Almoldea (Zaragoza) +1902 Donostia). Oliván Villagrasa familia Donostiara iritsi zenean, Federicok bost urte zituen. Oliván familiak ale, ardo eta batez ere, olioaren merkataritzan izandako esperientzia zekarren; izan ere, Monegros inguruan, merkataritza hura asko hedatu zen XIX. mendearen hasieratik aurrera. Produktu horien salerosketa, gurasoek abian jarri zutena, *Oliván Hijos* izenpean, hiriko garrantzitsuena izan zedin lortu zuten Federicok eta bere lehengusu Oliván Semper-tarrek, 1894an. Aberastasun ekonomiko hari esker, Banco Guipuzcoanoko lehen Administrazio Kontseiluko kide izan zen Federico 1899an, eta sortu berri zen Club Cantábrico aisialdi-sozietatekoa ere bai. Federico **Pilar Bago Aguirre**rekin ezkondu zen (*1864 Tolosa +1967 Donostia) 1895ean, Manuel Bago Aguirre mediku ospetsuaren arrebarekin.

Hemen ehortzita ez badago ere, haren seme zaharrena, Federico Oliván Bago, intelektual ezaguna izan zen. Ibilbide diplomatiko aipagarria egin zuen, baina ez hori bakarrik, *El Diario Vasco* egunkariaren sortzaileetako bat izan zen, eta idazlea. Literaturaren alorrean, *Puccini, su vida y su obra* lana da aipagarriena. Azorín-ek esan zuen moduan, "*Federico Olivánek Pucciniri buruz eginiko lana liburu ederra da, entretenigarria, atsegina. Irakatsi egiten digu, eta gozarazi*". Historiako Akademiaren kide izendatu zuten.

Hil baino hiru urte lehenago, ABCko kronikari José Berruezok Pilar Bago omendu zuen, 1964an egin dako elkarriketa maitekor batean. Ehun urte zituela, Pilarrek gogora ekarri zuen 1874ko Donostia nolakoa zen, bigarren gerra karlistaren erdian, bera Tolosatik iritsi zenean. Hogeita hemezortzi urterekin alargundu zen.



12.

Fermín de Lasala y Collado, Mandasko Dukea

Lasala familiak, hasiera batean, ehorzketarako hobiak eraiki zituen, eta 1882an eskatu zuten hileta-monumentua jartzeko baimena; gurutze soil bat, harlauzen erditik altxatzen dena. Inskripzioak jartzeko baimena ere eskatu zuten. Kristoren Pasioko azken estadio gisa altxatzen den gurutzea hartu zuten erreferentziatzat. Perimetroa ixteko, burdinazko hesi bat dago; hemen balkoietako itxituretan ikusten den ereduja jarraitzen badu ere, flameroak ditu angeluetan, eta loto-lore itxia, karelean zehar. Argizari-ontzi aroak ikusten ditugu honetan monumentua egun seinalatueta argitzeko.

📍 San Sebastian 9 - 17

Urtea: 1882


Jabea eta Sustatzailea: Fermín de Lasala y Collado, Mandasko Dukea

Lan-maisua: José Clemente de Osinalde

👤 Fermín de Lasala y Collado, Mandasko Dukea

Jarduera: Politikari

Jaiotza eta heriotza data: 1832-1917





Fermín de Lasala Collado (*1832 Donostia +1917 Madril). Haren bi aitonak Behe Nafarroatik eta Santanderretik etorri ziren, hurrenez hurren, XVIII. mendean, eta familia gipuzkoarrekin bat egin zuten, ezkontzaren bitartez. Merkataria ziren biak. Ferminen aitak, **Fermín Lasala Urbietta** (*1798 Donostia +1853 Madril) arrakasta izugarria izan zuen bai merkataritzan bai eta enpresan ere; Donostiaren berreraikuntzari esker, interes kapitalistak izan zituen nonahi, baita AEBetan bertan ere. Maila goreneko ibilbide politikoa egin zuen; Donostiako Alkatetzatik (1842) Foru Aldundiko lehendakari izatera pasatu zen (1844) eta gero, Madrilgo Diputatuen Kongresura ere iritsi zen (1846-1853). Haren emazte **Rita Collado Parada** (*1804 Donostia) Colladotarren familiakoa zenez, Lasala Colladotarren Tertulia politikoa ospetsuetako kide zen; hala, Donostiako liberalismoa defendatzen zuen, Isabel II.-aren aldekoa, Gerra Karlistetan. Aitak utzitako tokian jarraitu zuen ibilbidea semeak. Oinordetzan jasotako aberastasuna izugarri areagotu zuen, Gipuzkoako industriaren gorakadari esker; Brunet etxearekin batu zen, eta gainera, ibilbide politikoa arrakastatsua ere egin zuen. 1857an aitaren aulkia jaso zuen oinordetzan, eta Sustapeneko ministro izatera iritsi zen (1879). Gerora, ordea, jarrera liberaletatik urrundu zen, eta Cánovas del Castelloren jarraitzaile kontserbatzaileekin bat egin zuen. Laurogeita hamarreko hamarkadan enbaxadore izan zen Parisen, baina ezin izan zuen Frantziaren sostengua lortu, Amerikako azken koloniak galtzear baitzegoen, AEBen eskuetan. 1900. urtetik aurrera diplomazia-lanak egin zituen Londongo

enbaxadaren buruzagitzan, eta hari esker, Espainiak Afrika iparraldeko kolonialismoan parte hartu ahal izan zuen.

Garai hartan nobleziak lilura sortzen zuen burgesia sortu berriarengan, eta Lasala familiak ezin izan zuen hortik ihes egin. Fermín aitak, bere buruaren alde, Juan de Urbietaren ondorengo zela aldarrikatu zuen, 1525ean Paviako gudan Francisco I. errege frantziarra preso hartu zuenarena. Fermín semea, aldiz, **Cristina Brunetti Gayoso de los Cobos** (*1831 +1914) aristokratarekin ezkondu zen eta haren bitartez, ezkontide gisa, Mandasko Dukearen titulua etorri zitzaion 1884an -titulu horrexegatik ezagutu ohi da, gainera-, eta azkenik, eta Handietako bat izatea lortu zuen 1889an.

Ezkontideak hil zirenean, ondorengorik ez zutenez, **Cristina Enea** hiriarentzat gelditu zen, Mandasko Dukeak hala nahi izan zuen-eta. Egia auzoan dagoen hiriko parke handi bat da. Hantxe jarraitzen du haien jauregi tankerako etxebizitzak, 1890ean José Clemente de Osinaldek egindakoak. Parkean zehar, era askotako zuhaitzak ikusiko ditugu. 1977an Bartzelonara lehen pauma bikotea iritsi zenetik, parke honen nortasun-ikurra izan dira. Fermín Lasala Collado eta Fermín Calbeton etxe berean jaio ziren -plaka batek hala adierazten du- eta azken aterpean ere, auzokide izan nahi izan zuten. Haien lagun eta bazkide ziren Brunet familiakoen kaperatik ere hurbil daude.

13.

Brunet kapera

📍 San Sebastian 29 - 33

Urtea: 1884

Jabea: José y Francisco Brunet Segura

Sustatzailea: Pablo Brunet Birmingham

Arquitecto: José de Goicoaren obra dela uste da

Estilo arkitektonikoa: Eklektizismoa

👤 José y Francisco Brunet Segura

Jarduera: Bankari eta industrialariak

EKLEKTIZISMOA. Kaperaren titulartasuna nabarmendu nahi izan da argi eta garbi, eta José eta Francisco arbasoak omendu nahi izan dira; izan ere, arbaso haiek ongi finkatutako negozio-sare bat sortu zuten, beren gaitasun eta lanari esker. Hizkien kaligrafia ikusita, azoketan kanbio-letrak nola hasi ziren etortzen zaigu gogora, eta horrek, nola ez, bi anaiek banketxeetan egindako ibilbideari erreferentzia argia egiten dio.

Brunet familia Ama Birjina Errukizkoaren babespean jarri zen; harexen irudia dago, hain justu ere, multzo osoaren buru.





Brunet anaiak merkatori kataluniar aberatsen familia batetik datoz. XVIII. mendeko azken urteetan agertu ziren Donostian, eta banketxeen negozioan eta koloniekiko merkataritzan jardun zuten. Ordu-rako, familiak negozio-sare sendoa zuen Gaztelan eta Andaluzian. Donostiako itsas azpiegiturak baliatuz, Ingalaterrara eta Europa iparraldera hedatu ziren. Haietako bik -haien izenak hileta-kaperaren sarreran dagoen arkuan agertzen dira-, [José eta Francisco Brunet Segurak](#), Euskal Herriko saltokirik antzinakoenetakoa sortu zuten 1801ean, gerora (1901etik aurrera) '*Brunet y cia*' izenez ezagutuko zena. Haien banketxeak Espainiako portu garrantzitsu ia guztietan lan egiten zuen, Europako plazarik garrantzitsuenetan eta, nola ez, itsasoz haraindikoetan. Haien joera politikoa argia zen: liberalismoa. 1823an, José Brunet alkate izan zen; une hartan, hain zuzen ere, Espainiako lehen saiakera liberala zapuztuko zuten San Luisen ehun mila semeak iristear ziren, eta hirian gelditu ziren azken 200 donostiarren alkate izan zen Brunet.

Aduanak behin betiko Ebrotik Irunera aldatu zituztenean, 1841ean, aberastasun-garai bat iritsi zen, baina ordurako, Brunet familiaren hurrengo belaunaldiak zuen ardura. Francisco 1838an hil zen, José 1844an, eta haren semea, [José Manuel Brunet Prat](#) (*1806 Donostia +1892 Donostia), mende erdiz, funtsezko pertsona izan zen enpresarako. Artean ere, enpresa familiarena zen, Brunet Fernández de Arroiabe eta Brunet Prat lehengusuen esku baitzegoen, eta haien ondorengoen esku. Gipuzkoan sortzen ari zen industrian txertatzen hasi ziren: papergintzan, metalurgian, ehungintza-sektorean eta higiezinaren negozioan. Negozio jakin batzuetarako beste enpresari batzuekin batu ziren, baina sozietatearen muinak, hau da, Brunet Bankuak eta Lasarte-Oriako Kotoi-lantegiak familiaren esku egoten jarraitu zuten.

[Guillermo Brunet Bingley](#) biloba Gran Casino

Sozietatearen sortzaileetako bat eta haren lehen presidentea izan zen. Haiek ordaindu zuten erai-kina ere, gaur egun udaletxea dena. Donostiako Sustapena Sozietatea ere bultzatu zuen, eta haren ekimenez eraiki ziren gero Maria Cristina Hotela eta Victoria Eugenia Antzokia. Maria Cristina erreginak eman zion Guillermo Bruneti izendapen horietarako baimena. Familiaren zentzu hori adierazten du, oraindik ere, kaperak; arbelean idatzita, zerrenda luzeak daude, bertan ehortzita dauden familiako kideen izenekin, berrogeita hamazazpi guztira. Hemen eta Polloeko beste hilobiren batean abizenei erreparatuta, ikus daiteke pixkanaka familia handiek bat egiten dutela: Brunet Prat familiak Etxague Bermingham etxekoekin bat egin zuen, Gaytán de Ayala-tarrak ere agertu ziren, eta Churruca, Egoskozabal edo Goitia familiak ere bai.



14.

Rezola panteoa

Ikur bakar gisa, gurutzea duen irudi honek gogora ekartzen digu gorpu bat ehortzi den lekua hasiera-hasieran nola adierazten zen. Hildakoen erregistroan nabaria da eramaitetza liburuen garbitasuna, eta hori ezinbestekoa da enpresa baten antolakuntzan.

📍 Santa Katalina 46

Urtea: c. 1950

Jabea: José María Rezola Gaztañaga


Sustatzailea: Bernardo Rezola Olasagasti

Lan-maisua eta zuzendaria: Benito Olasagasti Irigoyen

👤 José María Rezola Gaztañaga

Jarduera: Industrialari

Jaiotza eta heriotza data: 1822-1867





Bi anaiak jarri zuten Rezola abizena Gipuzkoako merkataritza- eta enpresa-negozioen lehen leerroan, XIX. mende erdialdean: batetik **José Antonio Rezola Gaztañagak**, haren Lizarriturry y Rezola enpresak 1864tik xaboia ekoizten zuena, (besteak beste *Jabón Lagarto* ezaguna), eta bestetik José María Rezola Gaztañagak 1850ean *La Esperanza* zementu natural lantegia sortu zuena, gerora Cementos Rezola izango zena. Bizitza laburra izan zuen, baina enpresak etorkizunean izango zuen arrakastarako oinarriak ezarri zituen: Añorgako lurra erosi zituen, harrobiari esker hornidura ziurtatu, eta obra publiko handietan hasi zen lanean. Bere lantegitik, 1851ean, Donostiako portuko kaia eraikitzeko, karea eta silarriak hornitu zituen.

José María 1867an hil zen, eta orduz geroztik, haren alargun Dorotea Olasagasti Irigoyenek hartu zuen enpresaren gidaritza, haren sei seme-alabetako hiruk zuzendaritza arduratzeko moduko adina izan zuten arte. Mariak eta, batez ere, Bernardo eta Ricardo Rezola Olasagastik zuzendu zuten zementu-lantegiaren norabidea, berrogeita hamar urte baino gehiagoan, hainbat izenen azpian: *Viuda e hijos de J.Mª.Rezola*, *Hijos de J.Mª.Rezola* matriarka hil eta gutxira, *Hijos de J.Mª.Rezola y cía* 1900ean Loidi, Lizarriturry, Zulaica, Irastorza, eta abarren kapitala behar izan zutenean, eta azkenik, *Cementos Rezola S.A.*, Bernardo hil ondoren, enpresa garai modernoetara egokitu behar zenean, eta enpresa Sozietate Anonimo bihurtu.

Sortzailearen espiritua lagun izango zuten bi semeek, eta instalazioak etengabe berrituko zizuten, tamaina handiko enkarguak artatu ahal izateko. Mugarririk garrantzitsuena 1901etik aurrera Portland zementu artifiziala fabrikatzea izango da, Espainian hori egin zuen hirugarren zementu-etxea izan baitzen. Une hartan hasi zen behin betiko jauzia, eta hala, sektoreak Espainian zuen lehen enpresa bihurtu zen 1947an. Orduz

geroztik, 1958ra bitartean izugarri hedatu zen, eta zementu-lantegi berriak ireki zituen. 1989an, *Ciments Français* etxeak hartu zuen Cementos Rezolaren kontrola.

Fabrikaren inguruan, Rezola familiak hauxe proiektatu zuen:

“...kirolerako eremua, futbol zelai eder batekin eta estalitako frontoi bikain batekin, antzoki aretoa... ekoizleen seme-alabentzako apendiz-eskola... Etxebizitzei dagokienez, gaur egun 200etik gora dira, modernoak eta erosoak. Multzoa osatzeko, txalet eta hoteltxo ugari daude. Zerbitzuak ere badaude: ekonomatoak, harategia, arrandegia, okindegia eta gizon zein emakumeentzako ile-apaindegia. Hala ere, herrixkako eraikin guztien gainetik, elizaren dorrea gailentzen da...” [ABC “Cementos Rezola S.A. Empresa Ejemplar” 1955eko abuztuaren 9an]

15.

Pedro Alejandrino Irureta

📍 Santa Klara 66 - 70

👤 Pedro Alejandrino Irureta Artola

Jarduera: Margolari

Jaiotza eta heriotza data: 1854-1912



Marmolezko plaka xume batek adierazten du hemen [Pedro Alejandrino Irureta Artola](#) (*1854 Tolosa +1912 Donostia) ehortzi zela. Jaioterrian bertan hasi zuen prestakuntza artistikoa, Laureano Gordón margolari, grabatzaile eta argazkilaria ezagunarekin. Gasteizko Arte Ederren Akademian jarraitu zuen trebatzen, eta Bartzelonako La Lonja-ko Eskolan eta San Fernandoko Arte Ederren Eskolan, Madrilén. Han, Villegas eta Madrazoren ikasgaiak jaso zituen, besteak beste. Hark, Alejandrínok aurkeztutako proba baten aurrean, epaimahaia ez ziola oniritzirik ematen ikusita, hauxe aipatu zuen: *“Iruretaren ariketa estudiorik onena da, haren irudi biluziak apartekoak dira eta zorionik beroenak ematen dizkiot”*. 1870ean Erromara joan zen, Gipuzkoako Foru Aldundiak bidalita, eta han José Ignacio Luis Echenagusia *‘Echena’* bere lagun min eta margolariarekin bat egin zuen.

Madrilen 1881ean egin zen Arte Ederren Erakusketan, haren Ondina lanak hirugarren mailako domina jaso zuen. Koadroa Banca Bauer-eko Ignacio Bauer-ek erosi zuen, eta gainera, Sustapen Ministerioak kopia bat eskatu zion Iruretari. 1884ko urrian marrazketako irakasle izendatu zuten Donostiako Arte eta Ofizioen Eskolan, eta eskola hartan, bere antzinako irakasle Rogelio Gordón-en semearekin bat egin zuen, hango zuzendari baitzen. Eskola hartan jardun zuen handik aurrera, eta 1910ean zuzendariorde izendatu zuten. Probintzia Aldundiak Gipuzkoa Plazan izango zuen egoitzarako Presidentzia Aretoa apaintzeko enkargua eman zion; alabaina, zoritxarrez, aretoa desagertu egin zen 1885ean inauguratu eta gutxira, sute bat gertatu baitzen. Hala ere, handik gutxira eraikin horren erdiko eskaileraren gainean, ganga batean, Diosa Fortuna margotu zuen, eta gaur egun hantxe ikus dezakegu. 1886an [Gregoria Abonz Gorriti](#)arekin ezkondu zen. Idiakez kalean zuen lantokia, eta handik pasatu ziren hainbat artista, besteak beste Sorolla, Benlliure, Sarasate, Pradilla edo Echena.

1900ean Donostiako merkatariek, uda garaia amaitutzat emateko, kabalgata bat antolatu zuten, eta bertan, artista gremioek beren irudimena askatu ahal



izan zuten, esaterako, Alejandrinok berak. Garai hartako egunkari baten arabera, *"Gipuzkoako margolarien artean goren hegan egiten zuena"* zen, eta berak egin zuen Easo Ederraren tronua; haren gurdia, amaitzeaz zen urtaroaren ikurra; tximeleta eder batez irudikatu zuen, eta gari eta mitxoletazko zelai baten gainean jarri zuen. Urte hartan bertan, bi lan eman zituen ezagutzera, eta Rocaverdeko markesak enkargatutako koadro bat nabarmendu zen bereziki. Mihise hartan, familia bereko lau belaunaldi marraztu zituen; haiekiko antza, Francisco López Alén margolariaren arabera, ezin zehatzagoa zen. Halaber, horma-irudi bat ere egin zuen, Kontxako pasealekuaren irudi eder bat, Café del Norte ospetsurako. Lokal hura 1905eko udarako ireki zuten, eta horma-irudia bat zetorren garai hartako Donostia bainuetxe-hiriaren kutsu modernistarekin.

Alejandrinok Lore Jokoen antolakuntzan parte hartu zuen, eta proba artistikoetako epaimahai ere izan zen. Gaur egun, haren obretako batzuk San Telmo Museoan ikus ditzakegu, Alejandrinok gogor egin baitzuen lan museo harentzat, lan haiek ekoizteko.

1912ko abuztuaren 27an, depresio larri batek jota, bere buruaz beste egin zuen. Garai hartako prentsaren arabera, urte hasieran bere lagun min *"Echena"* hil izanak sortu zion malenkonia hura, eta horrez gain, Pariseko Arte Ederren erakusketarako lan bat egiten gorputz eta arima jardun ostean, lan hura baztertua gelditu izanak.



16.

Otamendi Machimbarrena kapera

NEOMEDIEBALA. Erromanikoko austeritatea hartzen du, hildakoa lurrekoa dela adierazteko; aldi berean, Kristoren Berpizkunderako gogoak igoera-sentipena ekartzen du, eta gotikoaren bidez sustatzen da hori. Er-tzaren lerroak markatzen du baten eta bestearen arte-ko muga. Estalkia piñoi altuan garatua dago, eta handik gora egiten du, gurutzeraino iritsi arte, loto-lore itxiak. Atea argia da, beira erabat gardenezkoa, eta arkitek-turaren estilistikak duen orientazioarekin bat datozen burdinazko apaingarriak ditu.

📍 San Sebastian 82 - 88

Urtea: 1891

Jabea: Otamendi familia

Sustatzailea: Hermenegilda Dussinague,

José Civils Puig-en alarguna

Arkitektoa: Sebastián Camio

Lan-maisua: José M^a Múgica

Lan-zuzendaria: Sebastián Camio

Estilo arkitektonikoa: Neomediebala

👤 Otamendi Machimbarrena anaiak

Jarduera: Arkitekto eta ingineru



Madrilgo hirian arrasto iraunkorra utzi duen euskal abizenik bada, Otamendi Machimbarrena familiakoena da. Lau anai-arrebak Donostian jaio ziren; aita [José Otamendi Orbegozo](#) zen, (*1837 Donostia +1909) eta ama Juana Machimbarrena Echave(*1850 Donostia +1923). Machimbarrena Echave anai-arrebak, XIX. mende amaieran, Donostiako familiarik aktiboenetakoak ziren, merkataritza eta enpresa-jardueren ikuspegitik. José Otamendi, aldiz, irakaslea izan zen, astronomoa, geografoa eta matematikoa, eta hark utzi digu Gipuzkoa Plazako estazio meteorologiko astronomikoa, hirigintzako mugarri gisa. Otamenditarrek Madrilera aldatu ziren, laneko arrazoiengatik, 1897an, eta hantxe gelditu ziren.

Joaquín anaia nagusiak –familiaren panteoian ehortzi ez zuten bakarra–, arkitektoa zenak, Cibeles Plazan dagoen Komunikazioen Eraikina egin zuen, Madrilgo Udalaren egoitza, Antonio Palacios lankidearekin batera.

Bide ingeniari eta ingeniari elektrizista izan zen [Miguel Otamendi Machimbarrenak](#) (*1877 Donostia +1958 Madril), aldiz, Madrilen eta Belgikan ikasi zuen, hurrenez hurren. Gaztetatik irakaskuntzan ibili zen, eta 1904an, AEBetako erakusketa batean Espainiako gobernua zuen ordezkari gisa, New York-eko metroaren inaugurazioan izan zen. Orduantxe sortu zitzaion Madrilgo Metroa eraikitzeko asmoa. Lehen tarteak, Sol-Cuatro Caminos bitartekoa, 1919ko urriaren 17an inauguratzea lortuko zuen, zenbait inbertitzailearen laguntzarekin; besteak beste, Alfonso XIII eta Banco de Vizcaya. Madrilgo Metroa zuzentzen jarraitu zuen, eta hirurogeita hamarreko hamarkada arte, Madrilgo Metroak ez zuen kontrol publikoa izan.

Bi anaia txikiak, [José María](#) (*1885 Donostia +1959 Madril) eta [Julián](#) (*1889 Donostia +1966 Madril), hurrenez hurren industria-ingeniaria eta arkitektoa zirenak, Miguel anaiaren Urbanizadora Metropolitana konpainian sartu ziren. Enpresa



hark eraiki zuen Gran Vía-ren zati bat eta Cuatro Caminos inguruko auzoak, gaur egun desagertuta dagoen Estadio Metropolitanoa eta AZCA eremua ere bai. Eraikin ospetsu gisa, aipatzekoak dira Espainia Eraikina eta Europa Dorrea, 40 eta 50eko hamarkadakoak, eta Espainia Plazan daudenak. Garai hartan, hormigoizko egitura zuten munduko bi eraikinik handienekotzat hartzen zituzten.

1989ko abuztuan, Otamenditarren Inmobiliaria y Urbanizadora Metropolitana etxea eta Banco de Vizcaya-ren Inmobiliaria Vasco-Central batu egin ziren, eta hala, Metrovacesa enpresa sortu zen, Espainiako higiezin-enpresarik handienetako bat.

José María Churruca Blasco, José María Otamendiren alaba María Otamendi Agarristarekin ezkondu zena, Metropolitana etxeko presidente izan zen, eta bat egitearen ondoren, Metrovacesaren administrazio-kontseilukoa, 1990eko ekainaren 3an hil baino zertxobait lehenagora arte. 2003an, Otamendi bakarra gelditzen zen enpresaren akziodun gisa, haren seme Álvaro Churruca Otamendi.

“Koshkeros, bautizados en San Vicente. Ingenieros del gran Madrid.” [Diario Vasco, Diario Vasco, 1966ko otsailaren 16an]

17.

Luis Aladrén Mendivil panteoia

📍 San Sebastian 100 - 102

Urtea: 1893

Jabea, Sustatzailea eta Arkitektoa: Marcelino
Luis Aladrén Mendivil

👤 Marcelino Luis Aladrén Mendivil

Jarduera: Arkitekto

Jaiotza eta heriotza data: 1852-1902

Luis Aladrén Mendivil. Estilo librea eta sendoko arkitektura baliatu zuen, joko bolumetrikoa oinarri zuena. *Diamante punten* apaingarria estilo horretara egokitzen da, eta ez du galtzen piramideak ehorzte-monumentuaren testuinguruan gordetzen duen zentzua.



Marcelino Luis Aladrén Mendivil (*1852 Zaragoza +1902 Donostia). Madrilgo Arkitektura Eskolan titulatu, 1878an. Ikasketak amaitu ondoren, Belgika, Ingalaterra eta Frantzia bidaiatu zuen. Parisen bizi izan zen zenbait urtez. 1880an, eta Frantziako hiriburuan egin zen Arkitektoen Nazioarteko Biltzarrean, lankide espainiarren ordezkari izan zen. Ekitaldi hura egin zenetik aurrera sortu zen, hiri hartan, Adolfo Morales de los Ríos arkitektoarekin izan zuen harreman profesionala. 1880an *Casino de San Sebastián* Sozietate Anonimoak etorkizuneko kasinoa eraikitzeko proiektuen lehia eta iragarri zuen. Aladrének eta Morales de los Ríosek egin zuten proiektu irabazlea. Sari hark ekarri zuen Donostiara 1883an; hiria ezaguna izango zuen ziur asko, amaren aldeko aitona-amonak hemengoak baitzuten. Luis Aladrén **Ramona Gurruchaga Uriarterekin** (*1863 Zumaia +1940 Donostia) ezkondu zen 1886an.

1887an, arkitekto biek elkarrekin lan egin zuten berriro, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jauregiaren berreraikuntzan. Aladrénekin obrarekin eta Morales de los Ríosarekin, Donostia udaldirako hiri bihurtzen hasi zen; horretarako lagungarri izan ziren Kontxako Pasealekua eta Mirakontxan laurogeita hamarreko hamarkadan sortu zituzten etxe alai eta ederrak eta “*hoteltxoak*” eta halaber, haien arkitekturan, kanpoaldera begira azuleju koloredunak jarri izanak.

Aladrének partikularren enkarguak hartu zituen hileta-monumentuak egiteko, besteak beste, San Sebastian kaleko 56-64eko kaperak, 1891n Carlos Gutiérrez Lozanoren alargunarentzat eginak; estilo eklektiko batean eginak dira, eta beste hileta-kapera batzuetan ikusten denetik ihes egiten du, oinean zein apaingarrietan. Hormatik gora igotzen den huntzari ematen dion trataera estilo Modernista batera hurbiltzen du. Fernando Tutón Vizcainorentzat, aldiz, San Sebastian 90-94ko kaperak proiektatu zuen 1894an, eta bertan, Erdi Aroko arkitektura ingelesaren adibideak baliatu



zituen.

Haren obra estilo neoerrenazentista eta neobarokoen barruan sartzen da; oinean mugikortasuna izateko joera du, eta altxaeren independentzia. Aipatzekoa da, alor horretan, estalki tipologia ugaria baliatzen duela. Joera neomedievalista jarraitzen du eraikin erlijiosuak eraikitzeko.

Gure hiritik kanpo, badira haren zenbait lan aipagarri: Zaragozan, Joyería Aladrén lokalaren proiektua, 1885ekoa, gaur egun kafetegi bihurtua, Alberto anaiarena zena, edo Bilboko Aldundiaren eraikina, 1890ean eraikitzen hasia. Eraikin hori, hain zuzen ere, eklektizismo alfonsinoaren obra gorenetakotzat hartzen da Bizkaian.

Hil zenean, bi obratan ziharduen lanean: Bilboko Montero etxea, batetik, Jean Batiste Darroquy arkitekto frantziarrarekin batera, eta hark amaituko zuen obra. Bestetik, Donostiako Gros auzoko Zezen Plaza. Proiektu hori Francisco Urcola arkitektoak amaitu zuen. Bi eraikinetan, estilo modernista hautatu zuen.

Alberto anaia izan zen *Memento Homo* hileta monumentuaren sustatzailea; oso gai originala zuen, bere hilobia zulatzen ari zen gizona erakusten baitzuen, Zaragozan dagoen Torrero-ko hilerrian. Clarasó eskultorearen obra izan zen, 1900eko Pariseko Erakusketa Unibertsalean urrezko domina jaso zuena.

18.

Lataillade kapera

KLASIZISMOA. José de Goicoak estilo doriko zorrotz bat hautatu zuen, gurutzea elementu adierazgarri gisa jarrita. Kanpoko austeritateak kontrastea sortzen du barruko espazio intimoarekin; izan ere, beruneztatutako beirate batzuk ditu, eta hala, barrualdea ametsezko toki moduko bat da. Egun eguzkitsuetan, hormen bakoek malba koloreko argia igortzen dute, eta goialdean dagoen begi handiak aldiz, urre koloreko argi dirdiratsua egiten du. Forma geometrikoekin nahastuta, hosto-orriak ageri dira -bananondoaren hostoa bere fruituarekin- eta horregatik, beirate-sorta horrek joera modernista argia du.

📍 San Sebastian 110 - 114

Urtea: 1889

Jabea: Anselmo Lataillade-ren alarguna

Arkitektoa: José de Goicoa

Estilo arkitektonikoa: Klasizismoa

👤 José María Anselmo Lataillade
y Queheille

Jarduera: Diplomazialari eta politikari

Jaiotza eta heriotza data: 1855-1910



José María Anselmo Lataillade y Queheille *1855 Altzaga +1910 Donostia, Donostiara joan zen bizitzera 1875ean, Askatasunaren Hiribideko 9ra zehazki, eta erroldan jabe gisa eman zuen izena. Pedro Queheille zuen aitona, 1843an Donostiako alkate izan zena; gizon hark XIX. mendean garrantzitsuenetakoak izan ziren merkataritza- eta banku-etxeetako bat sortu zuen. Aitonak eta aitak, Eugenio Latailladek, negozioak zuzendu zituzten elkarrekin 1849tik aurrera. M^a de la Piedad Aldecoa Goyarrolarekin (+1935) ezkondu zen. 1885ean zinegotzi hautetsia izan bazen ere, kargutik salbuesteko eskaera egin zuen handik gutxira. Hiriko ekonomia-garapena eta ongizatea sustatzen zuten delegazioekin lotuta egon zen beti, eta hasiera batean, hiria gas bidez argizatuko zuen enpresaren sustatzaileetako bat izan zen. Urte batzuk geroago, 1890ean eratu zen Compañía eléctrica de San Sebastián etxeko akzionetako bat izan zen. 1896an, Belgikako kontsul gisa agertzen da.

Haien seme Rafael Lataillade Aldecoa (*1879 Donostia +1967 Donostia) Dolores Aisarekin ezkondu zen. Ingeniaritza ikasi zuen Bartzelonan. 1928an Donostia eta Hernani arteko Tranbia Elektriko Konpainiaren administrazio-kontseiluko kide izan zen. Erregimenaren aldekoa zenez, Industria Ingeniarien Kidegoko Ikuskari Nagusi izendatu zuten 1940an; hala ere, *"Manifestuaren hogeita zazpi"* sinatzaileetako bat izan zen, hots, Don Juan-en bitartez monarkia berehala errestauratzearen alde egin zuen, eta horrek, noski, gerora kaltetu egin zuen bere ibilbide politikoa. Donostiako alkate hautatu zuten 1942tik 1947ra bitartean. 1946an Gran Casino berreskuratu zuen, eta udaletxe bihurtu. Donostiako San Roke eta Egia auzoetan udal funtzionarioentzako etxeak eraiki zituen, eta artea eta folklore herrikoia bul-tzatu zituen. Gipuzkoako Industriaren ordezkari izatera iritsi zen, eta erretiratu arte kargu horretan egon zen.

Alaba bat izan zuten, M^a Dolores de la Piedad La-



taillade (+1934), Antonio Caverio Goicorrotea Carondelet-eko Baroiarekin ezkondu zena.

Lau seme-alaba izan zituzten. Seme zaharrena, Iñigo Caverio y Lataillade (*1929 Donostia +2002 Madril), UCDko buruzagi demokristaua izan zen, eta hurrenez hurren, Hezkuntza, Justizia eta Kulturako ministroa 1977 eta 1981 bitartean. Tácito taldekoa izan zen, eta ondorioz, Hierro uhartean eduki zuten preso. Hainbat ministerio-kartera garatu zituen, eta hil zenean, Estatuko Kontseiluaren presidente zen. Rafael (+2013 León) eta Antonio (+2013 Madril) kirol arloko pertsona aipagarriak izan ziren biak; lehena, Espainiako Atletismo Federazioko presidente izan zen hamar urtez, eta bigarrenak aldiz, domina olinpikoa irabazi zuen Erroman. Piedad, alaba gazteena, higiezinaren sektorean aritu zen, enpresari gisa.

19.

Raimundo Sarriegui Echeverría

📍 Santa Katalina 142

👤 Raimundo Sarriegui Echeverría

Jarduera: Musikari eta musikagile
Jaiotza eta heriotza data: 1838-1913



Raimundo Sarriegui Echeverría (*1838 Donostia +1913 Donostia), Poyuelo kalean jaio zen (gaur egungo Fermin Kalbeton kalea) 38. zenbakian, 3. solairuan. Haurtzaroen triplea izan zen Santa Mariako koroan, eta gerora, tenore. Francisca Goñirekin ezkondu zen. Ez zuten seme-alabarik izan.

Raimundo Sarriegui “merkataritza-artekari” zen, eta donostiarrentzat, bertako inspirazio poetiko baten konpositore, Adrián Loyarte kronistak adierazi zuen moduan. Inspirazio hori apaintzeko, gatz handiko notak baliatzen zituen, eta azken batean, kutsu arin eta alai-ko konposizioak lortzen zituen. José Juan Santesteban maisuarengandik jasotako musika-trebakuntzan ikasi zuen hura.

Raimundo solasaldien zale amorratua zen, eta lagunekin elkartzen zen haien lokaletan; besteak beste, Casa Baroja inprentan edo Sebastián José Irastorzaren farmazian. Haraxe joan ohi zen Serafin Baroja Meatzeetako ingeniaria ere, Pío Baroja idazlearen aita; haren kronika guztien arabera, aita alaia eta umoretsua omen zen, eta gainera, erraza omen zen harekin hizketan jardutea, euskaraz zein gaztelaniaz. Hantxe izango zen José Manterola ere, Euskal kantutegiaren idazle, Diario de San Sebastiánen zuzendari, eta Euskal Erria al-dizkariaren sortzailea ere. Bilera haietan, ahaztutako sentimenduak berpiztu nahi izaten zituzten, eta haien berezko hizkuntzan adierazi. 1870 aldera, jendearengana iristeko, bertsolariengana jotzea erabaki zuten. Arrakasta erabatekoa izan zen. Saiakera hura ordurako iparraldean erabat arrakastatsuak ziren Lore Jokoen erakusgarri txiki bat baino ez zen izan. Arestian aipatutako pertsona guztiak ageri dira Donostian 1879an egin ziren Lore Jokoen sortzaileen artean. Bada, ‘gazte’ haiek ezagutu zuten Donostia hartan, aduanak tokiz aldatu zituzten, Isabel II.-ak lehen bainua hartu zuen hondartzan, eta hiria ixten zuten harresiak eraisteko unea geroz eta hurbilago zegoen.

Loalditik atera beharra zegoen, eta ezagutzera eman. Sarrieguik, hogeita hiru urterekin, herri sentimendu horiek adierazi nahi izan zituen, eta Donostiako Martxa



konposatu zuen, edo hiriko patroiairen himnoa, 1861ean. Eta soinu hura, nola ez, jai guztietan entzuten zen danborretatik atera zen. Serafin Ba-roja lagunak jarri zizkion hitzak.

1882an, Udalak lanean ziharduen turistak neguan ere hirira erakartzeko, eta horretan zihardutela, Nizako inauteri-jaietan jarri zuten arreta. Nola ez, Raimundok orduan Momo jainkoari konpartsa bat egin zion.

Hark egina da Hungariako Kaldereroen Konpartsa; 1884az geroztik gogora ekartzen du 1828ko Kandelarian kalderero turkiarrak nola iritsi ziren, penintsulatik igaro zirenean, eta hiriko Alde Zaharretik zalaparta izugarrian nola desfilitatu zuten.

Konposizio bat behar zuen edozein sozietate edo tunak Raimundo eta bere gitarra txikiarengana jotzen zuen, hark soinu egoki bat emango zienaren jakitun.

Sarriegui bere lagun Telleriak Narrika kalean zuen farmazian solasean zegoela harrapatu zuen heriotzak. Hiletan izugarrizko jendetza egon zen; hantxe egon ziren, familiari lagun egiten, Donostiako Orfeoiairen Zuzendaritza Batzordea, Euskal Lore Jokoen Udalbatzakoa, Donostiako Artekarrien Elkargoko presidentea, Easoko Zirkuluaren zuzendaritza, aisialdiko sozietate herrikoiak, eta nola ez, Sarrieguiren jarraitzaile zen herriko seme ugari. Udala ere han izan zen, Tabuyo alkatea buru zela, eta nola ez, solasaldietako lagunak ere bai.

Hil zenean, ondareak utzi zituen, dirutan, Ongintza Etzerako, haurren bandarako musika-instrumentuak eros zituzaten, Matia Egoitzarako, Hermitas de los Pobres eta Asilo de Niños de San José erakundeentzako, Ategorrietako Lekaiame Domin-gotarrentzako, Hernaniko Agustinentzako, Kristo-baldegiko kontzepzionistentzako eta Donostiako Oblatuentzako.

Urtarrilaren 19an, Donostiako patroiairen egunaren bezperan, Donostiako Martxa ospetsua hiri osoan zehar entzuten da.



20.

Ohlsson panteoia

NEOKLASIKOA. Hildakoen plakek duten kaligrafiaren plastika bereziki aipatzekoa da. Ohlsson bere arbasoen jatorrira begira jartzen da, bere azken aterpean babes-teko. XIX. mendearen hasieran izandako Celtic Revival izeneko joerara itzuli da, eta literatura eskandinaviarrak Erromantizismo garaian bezala, bikingoen garaia gurtzen du.

📍 Santa Klara 157 - 159

Urtea: 1904

Jabea eta Sustatzailea: Olof Ohlsson

Lan-maisua: Domingo Eceiza

Egilea: Aguirre (Hijos de Marcial Aguirre)

Estilo arkitektonikoa: Neoklasikoa

👤 Olof Ohlsson

Jarduera: Ingenieru eta diplomazialari

Jaiotza eta heriotza data: 1872-1935





Olof Ohlsson (*1872 Malmö +1935 Donostia). Ingeniaria eta Suediako kontsula Donostian. Ingeniarien buru gisa lan egin zuen Sociedad Española de Construcciones Metálicas etxean, gaur egungo CAFen, Beasainen. 1913an bi patente-lizentzia eman zizkieten: bata salgaiak garraiatzeko bagoien ateetarako bisagren gainekoa, eta bestea, ibilgailuetarako guarda-plakak hobetzekoa. Biak ere, trenen alorrean eman zizkieten. 1916an, beharbada ordurako *Herederos de Ramón Múgica* tailerrean ziharduela, beste patente bat eman zioten, trenen bagoietarako topeen gainekoa. **Pepita Múgica**rekin (*1879 Donostia +1969 Donostia) ezkondu zen, Ramón Múgica Echeverriaren alabarekin. Ramón Múgica arotz lanetan hasi zen Tolosan, eta 1883an hiriburura aldatu zen. Tailerra azkar mekanizatu zuen, eta gainera, aukera izan zuen gama altuko zura eskaintzeko; izan ere, XIX. mende amaierarako, Suediatik, Norvegiatik edo Finlandiatik inportatzen zituen salgaiak. Hemen eraldatu egiten zituen, eta oso produktu estimatuak sortzen zituen.

1916an tailerra trenen bagoiak muntatzen hasi

zen, eta ospea eman zien beste gauza bat egiten ere bai: pertsiana mekanikoak egiten. Olof Ohlsson suhiak produktu haren bikaintasunaz hitz egingo zuen GATEPAC, ACren aldizkarian.

Ramón Múgica Echeverría hil zenean, *Herederos de Ramón Múgica* oinordekoei utzitako ondare aberatsaz hitz egin zen garai hartako prentsan.

Ramón Ohlsson Múgica (*1911 Donostia +1970 Donostia). 1928an Madrilera joan zen, etorkizunean poeta izango zen Gabriel (Múgica) Celaya lehengusuarekin, Industria Ingeniaritza ikastera. Ikasleen Egoitza batean bizi izan ziren biak urte haietan, García Lorca gaztearekin batera. **Teresa Gascuere**rekin ezkondu zen (*1910 Donostia +1979 Donostia). Francisco Gascue meatzeetako ingeniariaren alaba zen. 30eko hamarkadako lehen urteetan, hockey jokalaria ezaguna izan zen.

Iparraldeko herrialde urrun eta hotzetatik zura ekartzen zuen itsasontzietako batek "*Pepita*" ize-na zuen.

21.

Luzuriaga panteoia

📍 Santa Katalina 146 - 150

Urtea: 1943

Jabea: Victorio Luzuriaga

Arkitektoa: Ricardo Olarán Añibarro

Egilea: Altuna

Estilo arkitektonikoa: Klasizismoa

👤 **Victorio Luzuriaga Iradi**

Jarduera: Industrialari

Jaiotza eta heriotza data: 1881-1960

KLASIZISMOA. Victorio Luzuriagak, 1943an, Altzan zuen pabilioia ongi egindako ekoizpena gurtzeko tenplu gisa hartu zuen. Garai hartan, haren antzinako hilobia berritu zuen, eta industria-pabilioia egin zuen arkitekto berari eskatu zion, Ricardo Olarán. Arkitektoak klasisismoan bilatu zituen lan hartarako ukituak, eta gure aurrean atari izugarri bat balitz bezala altxatzen den arkitektura-lana gauzatu zuen. Apaingarriak bat datoz monumentuaren eginkizunarekin, eta gainera, elementu anekdotiko moduko batzuk dira; batez ere, pilastra bakoitzarekin lotutako girlandak. Pilastrek, gainera, aurrealdean ildoak dituztenez, garai arrazionalistako dekorazio tubularra gogorarazten dute. Eta horrexek ematen dio monumentuari, gurutze luzearekin batera, bere ezaugarriarik nabarmenetako bat: bertikaltasuna. Izan ere, ongi egindako lanak -kristau bizitzan egindakoak- ekarritako goraldi edo igoera bat adierazten du.





XIX. mendeko bigarren erdian, Gipuzkoako metalurgia-industria hazi zenean, Donostia hiria baztertuta gelditu zen, itsas portua izan arren. Ordurako, Gipuzkoako hiriburuak beste eginkizun batzuk zituen: toki erresidentziala zen, eta aisialdikoa. Hala eta guztiz ere, [Javier Luzuriaga Arpide gazteak](#) (* 1855 Oiartzun + 1928 Donostia), 1887an, bazkide batekin batera, fundizio txiki bat sortu zuen Kaiko pasealekuan eta gerora, Abuztuaren 31 kalean. 1898an Ategorrietara aldatu zen, eta hogeitaz geroago, jauzi bat eman zuen, Pasaiara aldatu eta Molinao fundizioak erosi baitzituen.

Hil zenean, [Victorio Luzuriaga Iradi](#) (*1881 Lasarte-Oria + 1960 Donostia) semeak jaso zuen, eta hark *"industria-inperio"* izateraino bultzatuko zuen Astilleros Luzuriaga. Lantegiaren erabateko garapena oztopatzen zuten arazoei tinko egin zieten aurre. Enpresaren ibilbidean lau mugarri aipa daitezke: batetik ur gaineko dikea instalatu izana, Pasai San Pedroko portuaren aurrean, Errepublikako urteetan. 1945ean, Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren, fundizioetarako ezinbesteko materia baten falta etorri zen: kokezko ikatzarena. Luzuriaga etxeak Ingalaterratik inportatzen hasi ziren. Halaber, berrogeiko hamarkadan izan zen gasolina-falta ere konpondu zuten: auto eta kamioietarako gasogenoak fabrikatu zituzten, eta hortik, automobiletarako pieza moldeatuak ekoiztera pasatu ziren. SEAT enpresarekin ere harremanak sortu zituzten. Baina horrez gain, elektrizitatearen eskasiari ere aurre egin behar izan zioten; izan ere, garai haietan, itzalaldi ugari egoten zen, eta horregatik, zentral termiko bat erosi zuten Hernanin.


Francisco Luzuriaga Tobalina semeak eta José Urresti Andonegui suhiak hartu zuten, gerora, enpresaren zuzendaritza. Hirurogeita hamarreko hamarkadan krisi latza izan zuten, euskal siderurgia sektore guztiak bezala.

Laurogeita hamarreko hamarkada hasieran desagertu zen *Astilleros Luzuriaga S.A.* enpresa, garai onenetan 4000 langile izatera iritsi zena, eta lantegia Fagor-en eskuetara igaro zen.

1888ko abenduaren 24an *El Guipuzcoano* egunkarian aipatu zen Eguberrietako loteriaren sari nagusia Donostian suertatu zela, eta nori tokatu zitzaion adierazi zuen.

«Iraizoz eta Luzuriaga jaunek, dezimo bat zuten Kaiko fundizioak, 25.000 duro eskuratu dituzte...»

Zenbakia 4211 zen. Loteriako sari hari eta banketxe baten maileguari esker, Javier Luzuriagak Molinao Fundizioa erosi zien haren jabe ziren Brunet familiari eta Mandasko Dukeari. Erosketa ixteko, eskua eman zioten elkarri.



22.

Aingeruaren irudia

Gauza sentikorren mundua eta mundu espirituala lotzea da aingeruen eginkizuna. Hirurogeita hamahiru adibide ditugu hemen; batetik erliebeak -gorputz osokoak zein buru hegodunak- eta bestetik konkorr biribildunak.

Okupazioaren hasieratik, 1897. urte arte, zazpi monumentu egin ziren aingerua protagonista zutela. Halako irudiek ospe handia lortu zuten 1900etik aurrera: urte hartatik 1917 arte berrogei errepresentazio egin ziren.

Aingeru otoizgileak edo bitartekariak heriotzaren aurrean nor bere barnera nola biltzen den adierazten du; hots, Berpizkundera iritsi arte izaten den itxaronaldi lasaia. Eskuak elkartuta edo bular gainean dituztela irudikatzen dira, hegoak tolestuta dituztela, eta aurpegi atsekabetuarekin. 1880an Santa Klara 54an egin zen eskultura-irudi bat dago, Jacinto Mateuk egina izan litekeena, eta haren soiltasun eta barruratzearabatekoa da; ez dugu halakorik ikusiko XX. mendeko 30eko hamarkadara arte.

1886an ikusten dugu lehen aingeru zaindaria edo Berpizkunderaren itxaronaldiko laguna. Obra hori Marcial de Aguirre eskultoreak egindako Santa Katalina 79an ikusi dezakegu. Kasurik gehienetan, koroa edo lore sorta eduki ohi du eskuetan. Aurreko kasuan bezala, hegoak tolestuta ditu, 1904koa den San Sebastianeko 181-183koak bezala. 1904. urte hartan, aingeruaren irudiaren ondoan bestelako atributuak agertzen hasi ziren; esaterako, martirioaren palma, eta aldi berean, haren inguruan giro eszeniko bat sortzen da. 1907an, San Sebastian 217-221ean, monumentu batek izan duen ikur sorta handienera iritsi zen: martirioaren palma, lore-koroa, gurutzea huntzarekin, Espiritu Santua adierazten duen usoa, pasio-loredun girlanda eta oliozko lanpara. Horrek guztiak, gainera, harkaitzezko eszenatoki bat du.

1894an, lehen aldiz, Memento Moriren ideiarekin lotutako aingeru baten irudia agertzen zaigu. Izan ere, filakteria bat darama eskuetan, mezu honekin: "*Memento, homo, enim pulvis es et in pulverem reverteris.*" (Gogo-

📍 Polloe hilerria





ratu, gizakia, hauts zara eta hauts bihurtuko zara). Aingeruaren irudia kapera baten gainean jarri zen lehen aldia izan zen. Adibide hori San Ignazio 95-99ko kaperakoa da, eta Agustín Fermín eskultoreak egina.

1909. urtean agertu zen Berpizkundeko Aingeru iragarlea. Aingeruarekin batera, tronpeta luze bat agertzen da, eta instrumentu horixe entzungo da loriaren unean, hain justu ere. Hegoak erabat irekita dituela irudikatu ohi da, astindu egingo balitu bezala, eskuineko besoa altxatuta eta hatz erakusleak zerura begiratzen duela. Haizeak tunika eta ilea mugiarazten ditu, eta horrek loriaren errepresentazio orok inguruan izaten duen poz eta aztoramena ekartzen dizkigu. Adibide garrantzitsu bat San Lorenzo 109-117/San Prudentzio 110-118 da, 1910ekoa.

Jarrera lasaian, 1915eko adibide bat dugu San Prudentzio 220-222an, eta azken agerpina 1955. urtean, San Frantzisko Xabier kaleko 56-58an. 1911n, gai hori antzerki-izaera argiarekin irudikatu zen, San Sebastian 232-234an. Ate bat ageri da erdi irekita, eta aingerua eskailera batetik jaisten ari da, hildakoei Berpizkundera iritsi dela adieraztera joango balitz bezala.

1904an aurkituko dugu Aingeru Zaindaria gida-tutako umearen adibide bakarra, San Sebastian 189-191ean. Halaber, urte hartan, Stella Marisekin lotuta dagoen aingeru gidariaren irudia ugaritu zen, esaterako San Sebastian 185-187an. Kopetaren gainean izar txiki bat du, eta horrek ekartzen digu hura gogora. Gainera, gurutzea-erlijioaren ikurra- euskarri izango da zeharkaldian.

Polloen oso hedatuta ez dagoen tematika bat aingerua irudi teologal gisa irudikatzea da: Fe-dea -kaliza ikur gisa duela- eta Itxaropena, ainguraduna. Horren adibide bat hogeita hamarreko hamarkadan altxatutako monumentu bat da, San Ignazio 118-120koa. Badugu hogeigarren hamarkada amaierako monumentu bat, Santa Klara





329koa, zeinetan aingerua eta aingura monumentu berekoak baitira; hala ere, haien artean ez dago harreman zuzenik. Aingura gurutzearen oinean dago, eta Liburuaren euskarri da; aldiz, aingerua gurutzerantz begira dago, eta haren euskarri da.

Hainbat monumentutan, gai nagusia aingeru haurra da. Askotan, gurutzearekin lagunduta agertzen dira, esku txikietan lore sorta edo koroa txikiak eramanez, loreak oinen azpian zabaltzen dituztela. Berpizkundeko putti txikiak dira horren eredu. Bi alditan, irudikatutako haurra irudi erreal batera hurbiltzen da, zeinetan haurraren jarrera eta janzkera sentipen hori ematera bideratuta baitaude. Artean ere ume izanik hildako seme-alaben oroimenez egin ohi dira halako monumentuak.

Hileta-monumentuetan, apoteosi handiak irudikatzen dituzten koadroetan gertatzen den bezala, buru hegodunak loriaren iruditzen hartzen dira. Kaperetan adibidez, sarreraren alboetan aurkitu ohi ditugu, mentsula gisa, edo apaindura-programa batetako azken adierazpen ere izan daitezke. Irudi horiek betetzen dute atmosfera, adibidez, gurutziltzatze batean, ondorengo Berpizkunde eta Loriaren adierazgarri, San Sebastian 279-283an.

Polloeko hilerrian, Karmengo Ama Birjinak garrantzia berezia du, noski, Donostia kostaldeko hiria delako. Bi alditan jaso da Carmelo Mendian gertatzen den eszena, eta bertan, aingerua ikus dezakegu arima damutuaugarretatik salbatzen ari dela, esate baterako San Prudentzio 257-259an.

Aingeruaren irudikapenak jarraitzaileak izan ziotuen mugimendu arrazionalistan ere; haien eremuan "sartzen" zen aingeru bat irudikatzen zuten, gurutzea ezkutu gisa zeramana, adibidez Santa Klara 212-214an edo San Sebastian 408an.



23.

Francisco Grandmontagne

Francisco de Grandmontagne y Otaegui (*1866, Burgos +1936 Donostia).

98ko Belaunaldiko idazle izan zen. Haren aita, Javier de Grangmontagne, lan bila muga zeharkatu zuen erremintari frantziar bat izan zen. Benita Otaeguirekin ezkondu zen eta Burgosera alde egin zuen lan-kontuengatik. Hamabi urterekin, Francisco Hondarribira bidali zuten, amaren aldeko osaba Claudio Otaeguiaren etxera. Pertsona jantzia zen, eta onura handia egin zion Franciscoren trebakuntza intelektualari.

📍 Santa Klara 220 - 222

👤 Francisco de Grandmontagne y Otaegui

Jarduera: Idazle

Jaiotza eta heriotza data: 1866-1936

Hogeita bat urterekin Argentinara emigratu zuen. Han nekazaritzan jardun zuen lanean. Denborarekin kazetari bihurtu zen, izugarrizko bokazioa baitzuen; are gehiago, José Rufo Uriarterekin batera, La Vasconia aldizkaria sortu eta zuzentzera iritsi zen. Aldizkari hura Buenos Airesen argitaratzen zen, baina Argentina, Uruguay, Paraguay edo Txilen bizi ziren euskaldun emigranteen etxeetara hedatu zen, eta Euskal Herrira ere iritsi zen. Luis Jaizquibel ezizenarekin sinatzen zuen. La Vasconia aldizkarian lan egiten zuen bitartean beste hainbat egunkariarekin kolaboratzen zuen; besteak beste El Tiempo edo Caras y Caretas aldizkariarekin. Ipuinak, saiakerak eta eleberriak idatzi zituen. Teodoro Foronda izan zuen lehen eleberria, 1896-1897koa, eta haren ondotik La Maldonada iritsi zen, 1898an. Salamancako Unibertsitateko errektore Miguel de Unamunorekin harreman epistolar handia izan zuen, eta haren lana sustatu zuen Argentinatik. Gerora, José Ignacio Tellechea historialariak argitara emango zituen haien arteko gutunak. Kazetari gisa egindako ibilbidean, berrehun biografiatik gora egin zituen; idazle, artista, erlijioitsu, abenturazale eta abarrenak. Haietako asko, pertsonaia garrantzitsuak izateaz gain, euskal emigranteen seme-alabak ziren. Euskaldunen pertseberantzia eta ahaleginerako gaitasuna goraiatu zituen bere obran.

Espainiara itzuli zenean, lehenbizi Madrilén jarri zen bizitzen, eta gerora Donostiara aldatu zen; han ere, hainbat egunkariarekin kolaboratu zuen.



Ideologiaz errepublikazale eta liberala bazen ere, begi onez ikusi zuen, eta itxaropenez ere bai, Primo de Riveraren diktadura. Jarrera hark Miguel de Unamunorekiko adiskidetasuna hautsi zuen.

Grandmontagneren panteoian brontzezko plaka bat dago, hiru hamarkada baino gehiagoan berriemaile gisa lan egin zuen Argentinako egunkariko lankide eta lagunek bidalia



24.

Kutz panteoia

📍 Santa Klara 290

Jabea: Benito Kutz Scheidler

👤 **Benito Kutz Scheidler**

Jarduera: Industrialari
Jaiotza eta heriotza data: 1847-1898

Benito Kutz Scheidler (*1847 Ulm (Alemania) +1898 Donostia), garagardo-egilea.

Kutz abizena 1867an iritsi zen Donostiara, Benito garagardo-egilea etorri zenean. Harresiak eraitsi, eta hiria zabaltzeko lanak hasi zituztenean, Donostia erakargarri bihurtu zen zerbitzu-sektorerako, besteak beste. Benitok inguruko uren ezaugarriak ezagutzen zituen -hori funtsezkoa da azken produktuan- eta gainera, bazekien Donostiak geroz eta erakargarritasun gehiago izango zuela turismorako. Negoziatorako itxaropen onak zituzten, 1870ean Luis anaia iritsi zenean (*1843 Ulm, Alemania +1895 Donostia). Bi anaiak Ygarzabal Cipitria ahizpekin ezkondu ziren. Ategorrietan sortu zen lehen establezimendua: Estrasburgoko Garagardotegia eta Izotz Fabrika. Benitok 1879an eman zuen izena Gipuzkoako industrien urtekarian, eta Luisek, aldis, 1883an. Benitok Bartzelonan 1888an egin zen Erakusketan parte hartu zuen, eta Zilarrezko Domina irabazi zuen bere garagardoagatik. Ordurako, lehoia zuten ikur.

XIX. mendeko laurogei eta laurogeita hamarreko hamarkadetan edari-industria asko sortu ziren Donostian eta inguruan. Giro hartan, Kutz anaiek iragarri zuten errentagarria izango zela beste lantegi bat irekitzea. Luis Ategorrietako establezimendu zaharrarekin geldituko zen, eta Benitok, 1890. urte inguruan, lantegi handi bat sortu zuen, Antiguo auzoan zegoen Pedro Escalaren garagardotegi zaharra baliatuz, beharbada. Handik aterako zen 'El León' garagardo ezaguna. 1898an E. Flagey-k bi garagardotegietako lorategiak zein ederrak ziren aipatu zuen, biak ere Rhin inguruetako modaren arabera prestatuak. Benitoren alargun Francisca jarri zen negozio berriaren buru, zuzendaritza Juan eta Teodoro semeek eman aurretik (San Sebastian 329-331 eta San Teodoro 19-21). Ramón, Luisen semea, Ategorrietako lantegiaren buru gelditu zen. 1908an hasiera bateko garagardotegi alemaniarraren moduan iragarri zen, eta garagardoa, gaseosak, Seltz-ura eta izotz naturala egiten zituen.

Kutz Ygarzabaltarren belaunaldi berri hark, Europako onenekin lehiatzera behartzen zituen bainuetxe-hiri



hartako eskakizunak betetzeko, saltokiak ireki zituen hiri erdian. Luis Kutz (San Prudentzio 89) Benitoren semeak hainbat saltoki izan zituen aldi berean: Askatasunaren hiribidean, San Martin 23an, Urbietta 24an eta Boulevard zumardian edo Garibai kalean. Azken hori Café de la Marina ospetsua izan zen, zabalgunearen lehen urteetako kafetegi famatua. 1907ko otsailean, Luisek eraberritze-lanetarako enkargua eman zion Luis Elizalde arkitektoari. Easo Ederreko kafetegi ospetsuena izan zen '*Café Kutz*'. Donostiako zein kanpoko prentsak lokalaren eraldaketaz hitz egin zuen hainbat artikulutan. Altzariak goraiatu zituzten, eta zilarrezko mahai-tresneria matea, eta industria hartako aparatuen berritasuna; besteak beste, garagardoa 6º eta 8º bitartean ateratzen zuen ganbera frigorifikoa. Han bertan egindako garagardoa saltzen zuten, Münchenetik bagoi frigorifikoetan etortzen zena ere bai, eta Austrialiakoa. Iruñeko Cafe Kutz ere oso ezaguna izan zen, Gaztelu Plazan zegoena. 1915ean, elkarrekin iragartzen zituzten Donostia eta Iruñeko Cafe Kutz-ak. Handik gutxira Madrilekoa ireki zuten, Gran Vía 16an, eta 1919 amaieran hantxe iragarri zuten Kutz laranja-edaria.

1921ean Juan eta Teodoro Kutzek Antiguon zeukatena baino ez zen erregistratu Kutz familiaren garagardo-lantegi gisa.

1965ean sortu zen El León garagardoaren sozietate anonimoa. Hamarkada haren amaieran merkaturatu zen haien beste marka, Keler. 1982an, Antiguoko lantegia Aranora aldatu zen (Nafarroa). 1986an, Cruzcampo taldea bihurtu zen lantegi osoaren jabe. Jabeak aldatuz joan dira, baina Keler garagardoa egiten jarraitzen dute, hasierako errezetaren arabera. Gaur egun, haren ekoizpena Damm industria-talde garagardo-egilearen esku dago.



25.

Mihura panteoia

📍 Santa Katalina 334

👤 Miguel Mihura Santos

Jarduera: Idazle, marrazkilari eta artikulgile

Jaiotza eta heriotza data: 1905-1977

Mihura familia hartzen duen hilobi xumea. Destinoaren gorabeherak direla-eta, Polloe izango zen haien azken aterpea.

Miguel Mihura Álvarez, antzerkigintzako enpresari ospetsua, zuzendari artistikoa eta aktorea, (*1878 Medina Sidonia (Cadiz) +1925 Donostia). Cadizko Diputazioko langile izan zen hainbat urtetan. Antzerkigintzarako bokazioa zuen, eta horregatik, Madrilera aldatu zen, Apolo Antzokian aktore izateko. Arrakasta handia lortu zuen. Ondoren, Lara konpainiara igaro zen, eta haren parte izan zen bost urtez. Hainbat eta hainbat obra idatzi zituen, bakarka zein kolaborazioan, eta azken kasu horretan, hainbat eta hainbat izenburu azpimarra daitezke Ricardo González del Toro-rekin batera egingakoak; Los campesinos eta La niña de los besos, beste askoren artean.

1925eko uztaillean udako bira hasi zuen haren antzerki-konpainiak, Aurora Redondo eta Valeriano León aktore nagusi zirela. Halaxe iritsi ziren Donostiara, Victoria Eugenia Antzokian emanaldia egitera, hain zuzen ere. Uztailaren 11n, Miguel ez zenez entsegetara aurkeztu, bere ordezkaria *La Urbana* ostatura joan zitzaion bila, eta hantxe aurkitu zuen hilik. Idazten ziharduela eraman zuen heriotzak. 47 urte baino ez zituen. Hurrengo egunean Polloen ehortzi zuten, eta hantxe izan ziren haren emazte eta seme-alabak, Madriletik etorriak, konpainiako aktore guztiak eta lagunak.

Datu horiek ezagututa, ez dira harritzekoak semeek gerora egin zituzten pausuak. **Miguel Mihura Santos**



(*1905 Madril +1977 Madril). 19 urte baino ez zituela, literatura-alorrean hasi zen, eta umorezko argitalpenekin kolaboratzen hasi zen. Antzerkiaren giroan hazi zen, eta haren gorabehera guztiak ezagutzen zituen; are gehiago, Rey Alfonso Antzokiko kontable gisa lanean hasi zen 1921ean. Garai hartan hasi zen antzerkigintza giroko kafetegietara joaten, eta besteak beste, Carlos Arniches saineteko eta umore kritikoko jeinuaren lagun egin zen, eta Muñoz Secarena ere bai. 1925ean, zenbait umorezko aldizkarekin kolaboratu zuen, marrazkilari eta artikuluegile gisa. 1932an Tres sombreros de copa maisu-lana idatzi zuen, garai hartako antzerkigintza komikoaren panoramarekiko komedia urratzailea, baina antzerkigintzako enpresariak ez zuten ulertu, eta ez zen 1952 arte estreinatu. Alabaina, urte hartan Antzerkigintzako Sari Nazionala jaso zuen, lan harexegatik.

Haren hurrengo lanek joera burgesagoa izango zuten, garai hartako gustuetara egokituagoa. Gerra Zibilean Donostian hartu zuen aterpe. Espainiako Falangean militante izan zen, eta La ametralladora aldizkari zuzendari egin zuten; aldizkari haren eginkizun nagusia aurkako bandoa umiliatzea zen. 1941ean *La Codorniz* umorezko aldizkaria sortu zuen, umore berezia izateagatik nabarmenduko zena. Haren zuzendari izango zen 1944 arte. Une hartan, Álvaro de Laiglesia-ri utzi zion kargua; izan ere, Donostian ezagutu ziren, La ametralladora zuzentzen zuen bitartean. 1953an berriro hasi zen antzerkigintzan lanean, besteak beste, *Mi adorado Juan* (1956) eta *Maribel y la extraña familia* (1959) idatzi zituen, eta lan haiekin ere Antzerkigintzako Sari Nazionala jaso zuen berriro. Sari gehiago ere etorri ziren. Zinemagintzan ere lehen urratsak eman zituen; esaterako, Bienvenido Mister Marshall filmeko gidoia egiten lagundu zuen (1953). Jerónimo Mihura anaia (*1902 Madril +1990 Madril) zinemagintzako kritikari eta bikoizketako zuzendari zen, eta harekin ere hainbat zinemagintza-proiektutan lan egin zuen.

Mihura Santos izan zen antzerkigintza komiko garaikideko lehen figura; batetik, garai hartako arau sozialekin hautsi izanagatik, eta bestetik, haren satirak zuen espontaneotasunagatik.

1976ko abenduan Real Academia de la Lengua erakundeko kide izendatu zuten, K eserlekua bete zezan. Harako sarrera-hitzaldia prestatzen ari zela hil zen, 1977ko urriaren 28an. Hondarribian ehorts zezatela nahi izan zuen, izugarri gustatzen baitzitzaion, baina azkenean, Polloen ehortzi zuten, gurasoen ondoan.



26.

Gurutze Gorriaren monumentua

📍 San Sebastian 250 - 262

Urtea: 1899

Sustatzailea: Gipuzkoako Gurutze Gorria

Eskatzailea: Donostiako Udala

Arkitekto: Juan Muguerza

Lan-maisua: Juan Muguerza

Egilea: Altuna



1898ko irailaren 14an, Santiago de Kubatik zetozen 102 gudari ohi iritsi ziren trenez Donostiara. Donostiatik Santanderrera arteko bidea Compañía Trasatlántica etxearena zen Satrustegi baporean egin zuten. Kantabriako hiriburuko ospitale batean denbora labur batez egon ondoren, gure hirira ekarri zituzten. Huraxe izan zen inoiz Donostiak hartuko zuen aberriratutako soldadu talderik handiena. Hainbat erregimentutakoak ziren. Hona iritsi ziren soldadu gehienak, jatorriz, Valladolid, Galizia eta Aragoikoak ziren. Gaixorik eta zaurituta zetozen. Ondorengo egunetan banaka iristen joan ziren, eta haien artean, donostiar batzuk ere iritsi ziren.

Pertsona asko hurbildu ziren harrera egitera, eta probintziako eta hiriko erakundeak ere bai. Gurutze Gorriaren ordezkari gisa, han izan ziren haren presidente Altube andrea (haren senarra, Miguel Altube, alkate zen), Cristina Brunetti Mandasko dukesa, Concepción Brunet, Bermejillo andrea, Lataillade andrea, beste dama batzuen artean; guztiak ere, Gurutze Gorria erakunde humanitariokoak ziren. Atsedenerako gela batean, iritsi berrientzako eta haiekin zeudenentzako mokadu bat prestatu zuten: salda, arrautzak, esnea eta jerez ardoa.

Ohetxoak prestatu zituzten ahulenak garraiatzeko, eta haiek eramateko kotxeak ere bai; 72 inguru Ospitale Militarrea, eta gainerakoak Amarako Probintzialera. Geroa iritsi zirenak Mirakruzeko San Ignazio Ospitalera joango ziren, Gurutze Gorriaren kontura.

Aberriratutako soldaduak iritsi bezain laster, Gi-





puzkoako Gurutze Gorriko damek harpidetza bat ireki zuten, dohaintzak jasotzeko. Dirua emanda egiten ziren, edo ospitaleetako egonaldiak ordainduta. Presidente jaun eta andrea ziren arduradunak, Altube andrea eta Sabino Ucelayeta hurrenez hurren, eta diruzaina aldiz, Silvestre Lasquibar zen.

Iritsi eta astebetera, sendatutako soldaduak alta hartzen hasi ziren. Beste batzuek denbora gehiago beharko zuten jaioterrira itzultzeko. Eta beste batzuek ezin izan zituzten zauriak edo gaixotasunak gainditu, eta harrera egin zien hirian hil ziren.

Gurutze Gorriaren ekimenez, monumentu hau altxatu zen, aberriratutako soldadu hilen errautsak hartuko zituena. Tomás Altunaren tailerrari esleitu zitzaion haren eraikuntza. 1899ko ekainaren 4an sinatu zituen planoak, eta uztaileko, bukatuta zegoen hileta-monumentua. Marmolgintzako tailer hark eskuzabaltasun osoz lan egin zuen proiektuan, eta materialaren salneurria baino ez

zuen jaso ordainetan. Kareharria erabili zuten hura egiteko, eta inskripzioetarako xafalak egiteko aldiz, Carrara-ko marmola

Hemen ageri dira ehortzi zituzten 24 soldaduen inskripzioak. Izenen ondoan, jaioterrria agertzen da.

Monumentuaren ondoan dauden palmondoek destinoaz hitz egiten dute, eta itsasoaz bestalde, hemen ehortzita daudenez.

Ez dute "*indiano*"-aren aberastasun ekonomikoa adierazten, itsasoz bestalde galdutako bizia baizik.



27.

José María Usandizaga panteoia

SEZESIOA. Elementu bakar batek ere ez digu heriotzaz hitz egiten. Artistaren loria hilezkorrari egindako monumentua da, eta famaren aurrean etengabe irekita dagoen eta errotazio-mugimendua duen heliotropoa erakusten du; fama hori dominan hautematen da, edo koroak osatzen dituzten haritz- eta erramu-hostoetan.

📍 San Sebastian 259 - 261

Urtea: 1916

Jabea eta Sustatzailea: Carlos Usandizaga Carril

Arkitektoa: Francisco Urcola

Egilea: Altuna



👤 José María Usandizaga

Jarduera: Musikagaile

Jaiotza eta heriotza data: 1887-1915





[José María Usandizaga](#), (*1887 Donostia +1915 Donostia). XIX. mendetik paradoxaren bat jaso badugu, tuberkulosia gaixotasun erromantikoa dela pentsatzea izan da. Gaur egun, oraindik ere, erakarri egiten gaitu sendabiderik gabeko gaitzak jotako idazle edo konpositorearen irudiak; gazte-gazte izanik, eta sorkuntza-lanik ederrenetarako gai izan arren, heriotzak eramaten duen pertsonarena. Molière, Bécquer, Chopin, Brontë ahizpak, Paganini, Kafka eta beste hainbat adibide daude. Beste hainbat artistek ez zuten tuberkulosirik izan, baina literatura-gai bihurtu zuten; besteak beste, Dumas-en *La Dame aux Camélias* izeneko lanak, Verdik *La Traviata* operan musikaz jantzi zuenak.

Usandizagari, haurra zela, gaixotasuna hezur eta artikulazioetara itsatsi zitzaion, eta hatzetako falangeak kaltetu zizkion; ondorioz, pianoa jotzeko zailtasunak izan zituen, Pariseko Schola Cantorum-en ikasten zuenean. Horiek hala, musika-konposiziora bideratu zen, horretarako dohain bikainak zituela erakutsi baitzuen. 18 urterekin, piano-jotzaile gisa espero zuen ibilbide oparoa bertan behera gelditu zen, eta Pariseko ikastetxe ospetsua utzi zuen.

Itzuli zenean, 1906an, Euskal Jaietarako prestakuntza-lanekin topo egin zuen. Haiek ordezkatzeko zutena amaren aldeko familiak erakutsi zion, beti ondoan izan baitzituen, gogotsu: Nicolás de Soraluze aitona, politikari eta historialariak, Gipuzkoako historia eta hango Foruak ikertzen jardun zuen bereziki, eta Cándido de Soraluze osabak, musikari zenak, *Iriyarenan* (1878) parte hartu zuen, eta euskal folklorismoaren notak ekarri. Usandizaga gazteak, osasun-arazoengatik, atsedeen hartzera erretiratu behar izaten zuen luzez, eta gero eszenatoki haiek bere musika-konposizioetara eramaten zituen. Beste musika alor batzuetan sartzeko aukerei ez zien muzin egin.

Bi lan handi egin zituen: *Mendi-Mendiyan*, euskal

baserri-giroan iragaten den amodio-istorio tragiko bat (1910) eta *Las Golondrinas* (1914) eszenatokian barre eragin arren, bizitza errealean negar egiten duen pailazoari buruzkoa.

Haren anai [Ramón Usandizagak](#) (*1889 +1964, Donostia), José Mariak amaitu gabe utzi zuen *La Llama* obra bukatu zuen, hura ere musikaria baitzen.

28.

Echeverría - Lorbes panteoia

📍 San Prudentzio 219 - 223

Urtea: 1923

Jabea eta Sustatzailea: Echeverría-Lorbes

Arkitektoa: Eduardo Lagarde

Egilea: T. Altuna

Estilo arkitektonikoa: Simbolismo modernista

SIMBOLISMO MODERNISTA. 1923ko azaroaren 2an, *El País Vasco* astekariko kronikari batek honela deskribatu zuen:

“...Hortxe dago Inocencio Echeverría jaunaren oroi-menean altxatu dena, amaitu gabe oraindik. Marmol zurizkoa da goitik behera. Gurutzearen erdian, Salbatzailearen aurpegia dago. Haren alboetatik igotzen da huntz sinbolikoa... Erredentzio ikurraren oinean, emakumezko irudi bat -oinazea- burua lurrerantz eroria duela ageri da. Ileak ezkutatzen dio aurpegia. Mausoleo hau amaitutakoan, ederrenetakoa izango da...”.

Lagarde-ek Desconsolotik hartu zuen inspirazioa, eta Josep Llimonak sentimendu hura harrapatu eta irudikatzen jakin zuen, 1907ko lanean; hilerriak toki isilak dira, eta hantxe aurkitu zuen bere lanak gordetzen zuen samina komunikatzeko tokirik onena.





Inocencio Antonio Echeverría Urruzola, ogibidez errentatzailea, eta **Pilar Eduarda Dominica Lorbes García** Okendo kaleko 16an bizi ziren, gaur egun desagertua dagoen etxebizitza batean. 1886an Inocencio Mar de Platara joan zen, han proiektatu zuen bainu-etxean erruletaren jokoa instalatzeko. Brasilen jaio ziren bi alabak, Elena eta Pilar. Donostiara itzuli zenean, José Luis semea jaio zen 1902an.

1903an, Braulio Echeverría, Inocencioren anaiak, Okendo kaleko 16an eraberritze-lan bat egin zezan eskatu zion Luis Elizalde arkitektoari. Hark lan-taldea bildu zuen, eta gero, apaintze eta ekipamendurako taldea ere bai; besteak beste, hirian ezagunak ziren baina hiritik kanpo proiektio handiagoa lortuko zuten artistak, esaterako, Gargallo Anaiak dekoratzaile eta eskultoreak. Braulio, bazkide eta sortzailea, 1909an sortu zen Espainiako Papergintza Sozietateko bazkide izan zen. Udal politikan ere jardun zuen, erregidore gisa, 1906-1909 bitartean.

Pilar Echeverría Lorbes (*1900 Brasil +1994 Donostia), Juan Felipe de Ranero Rodríguez de la Viñarekin ezkondu zen; senarra, 1920tik aurrera, ibilbide diplomatikoan aritu zen, eta besteak beste, Tanger, Beirut, Atenas edo Erromako enbaxadun buru izan zen.

Familiaren etxea, Okendo 16koa, posta-txartel batean agertu zen, Easo Ederraren kutsu modernoa ezagutzera emateko tirada bat sortu baitzuten. Halaber, etxea eraberritzeko lanak garai hartako arkitektura-aldizkarietan agertu ziren, eredugarritzat hartu baitzituzten.



29.

Ignacio Zuloaga

📍 San Prudentzio 174 - 176

Urtea: 1911

Jabea: Enrique Suárez Rezola

Sustatzailea: Guíu familia

Lan-maisua: Domingo Eceiza

Egilea: T. Altuna

👤 Ignacio Zuloaga

Jarduera: Margolari

Jaiotza eta heriotza data: 1870-1945



Ignacio Zuloaga, margolaria, (*1870 Eibar (Gipuzkoa) +1945 Madril), urriaren 31n hil zen, Madrilgo Gabriel Miró kalean zuen lantokian. Bularreko angina baten ondorioz hil omen zen. Gaitz harengatik, Gregorio Marañón medikuarengana joan zen, eta harekin solasaldi luzeak izan zituen.

Haren obra asko argitara eman ziren toki hartan ezarri zuten hil-kapera. Handik igaro ziren kultura eta politikako hainbat eta hainbat pertsona ospetsu, eta haiekin batera, Valentina de Thomas emaztea, Lucia alaba eta Enrique Suárez Rezola suhia. Haren oroimeneko mezan, lagunek jaitsi zuten hilkutxa bizkarrean: Domingo Ortega eta 'Albaicín' toreroek (azkena Ignacioren seme besoetakoa zen), Díaz-Cañabete idazle kostunbrista eta zezenketa-kritikariak eta Juan Cristóbal eskultoreak. Gurdi bat zegoen hilkutxaren zain, lorez eginiko koroaz gainezka. Hiletara joandakoak Almudenako zabalgunera joan ziren, eta hantxe eman zioten azken agurra artistari. Gurdiak, atzetik familia eta lagunak gurdiak zeuzkala, Donostiarako bidea hartu zuen. Gipuzkoako muga Foru Aldundiko ordezkariak zeuden zain, Ignacioren seme Antonio, Parisetik iritsi berria, eta bestelako agintariak ere bai. Foru Aldundiko Jauregian dena prest zegoen, Ohorezko Patioan, Gipuzkoako seme entzutetsuaren hil-kapera jartzeko, eta uneoro egon zen jendea han. Hurrengo egunean, azaroaren 2an, Santa Maria elizan hileta egin ondoren, hiletara joandako jendetza Probintzia Jauregira bidean jarri zen, eta kaperan erresponsua otoiztu zuten. Amaitutakoan, hilkutxa gurdira eraman zuten, hainbat lagunak artean bizkarrean hartuta: José María Donostyk eta Martiarena, Guardamino eta Fernández de Pasajes margolariak. Segizioak Txurruka kalean gora egin zuen Askatasunaren Hiribiderantz, eta Santa Katalina zubian eman zioten agurra. Handik aurrera, familiak eta hurbilekoek bakarrik lagundu zioten hildakoari Polloeko hilerria, eta han ehortzi zuten.

Ignacio Zuloagak, bizirik zegoenean, Madrilgo "Gizon entzutetsuen" panteoian ehortzeko eskaintza jaso zuen, baina berak aberrira itzuli nahi izan zuen, eta familiaren hilotzara.



Hil zenean, Manolete toreroaren erretratua egiten ari zen. Ortega y Gassetentzat egin zuen azken marrazkia. Juan Cristóbal eskultorea margolaria-
ren aurpegi-moldea amaitzen ari zen, eta esku-
neko eskuaren hustuketa. Madrilgo Plaza de las
Visitillas-en dagoen eskultura, Zuloagaren lanto-
kiaren ondoan dagoena, 1946-1947 artean egin
zuen artista bikain hark.

Baliteke Ignaciok heriotza gertu zuela hauteman
izana; izan ere, hil baino hamar egun lehenago,
urriaren 21ean, omenaldi hunkigarria egin zion
Pablo Uranga lagun min eta margolariari. Hainbat
aldiz atzeratu zuen kontua zen. Elgetan gertatu
zen, eta bion laguna zen Paco Durrio eskultorea
izan zen haiekin. Hirurak elkarrekin egon ziren
Parisen.

Bizitzan zein heriotzan, Zuloaga beti egon zen la-
gun artean, eta lagun haiek haren bizitzan tokia
hartu zuten pixkanaka. Haren *'Mis Amigos'* obra
(1920-1936), *'98ko belaunaldiaren familiako erre-
tratu'* gisa hartu ohi dena, horren erakusgarri da.
Ikatz-ziriz eta olioiz egindako marrazkia da, *'inoiz
bukatu gabea'*, eta hemen aipatutako pertsona
asko ikus daitezke bertan. Zumaian duen Santia-

go-Etxea museo eta etxea, bere garaian, artista
eta solaskideen topaleku izan zen.

Zuloaga familiako hiru belaunaldi nabarmendu
dira: Eusebiok damaskinatuaren artea berresku-
ratu zuen; haren semeak, Daniel margolari eta
zeramistak, haren eraberritzea bultzatu zuen, eta
eta Plácidok damaskinatuaren artea ikertu, azter-
tu eta berriztatu zuen -harena da Reus-eko Prim
Generalaren Mausoleoa-. Azkenik, Plácidoren
seme Ignacio margolari kostunbrista eta erretra-
tu-egilea izan zen.

Azaroaren 1ean, New York eta Lisboako prentsan
hunkiduraz iragarri zuten margolariaren heriotza.

Donostiako Zuloaga Plazan ikus dezakegu Julio
Beobide eskultoreak, hots, *'Mis Amigos'* lanean
agertzen direnetako batek, Ignacio Zuloagari
1938an egindako bustoa.

30.

Monumentu Obeliskoa


📍 San Prudentzio 161 - 163



Hareharritzko obelisko bat dago iparraldean maileria igoera duen lurrezko muino baten gainean. Pascual Madozek Gipuzkoari buruzko hiztegi geografikoan deskribatzen du San Martin hilerriko monumentu horren kokapena eta antolamendua. Hasiera batean, burdinazko gurutze bat zuen gainean; gaur egun, bola itxuran amaitzen da. Madozek jakinarazi zuen hilerri zaharreko higiezinen parte zela eta hezurtegia zaintzeko funtzioa zuela.

1884ko irailaren 22an, Javier Alcainek San Bartolome hilerritik piramide bat lekualdatzeko eskatu zion Udalari; esan zuenaren arabera, Angel Gil Alcainen jabetzakoa zen. Berri hori Madozek aipatutakoarekin kontrastatuz gero, pentsarazten digu monumentu hori lehen ere lekualdatu zela. Angel Gil Alcain Garro 1796an jaio zen Donostian eta hiriko alkatea izan zen 1839, 1844-1845, 1850-1851 urteetan. Hari buruzko kronika guztietan bere agintaldietan egin zuen lan ona aipatzen da. 1846an, Karlos III.aren zaldun izendatu zuten.

Gaur egun, monumentua idulki altu batean igota ikusten dugu, lekuko funtzioarekin; izan ere, han erregistratzen dira Polloeren historia osatzen duten datuak eta, hedaturaz, San Martin eta San Bartolomeeren historia osatzen dutenak. Arbel batek gogorarazten digu monumentuaren funtzioa, hildakoak zaintzea, alegia. Beste arbel batek 1878ko abuztuaren 12a du erregistratuta, Polloeren bedeinkapenaren eguna. Beste batek, berriz, 1879ko apirilaren 30a aipatzen du, San Martin hilerri zaharreko hildakoak lekualdatu ziren eguna. Adierazi behar da lekualdaketa urte horretan hasi arren, prozesua 1888an amaitu zela. Gaur egun erabat desagertuta dagoen laugarren arbelean, garaiko prentsako datuen arabera, San Bartolome hilerriko hildakoen lekualdaketa data aipatzen zen, hain zuzen, 1877ko uztailaren 18a. Aurreko plakan bezala, hasierako eguna aipatzen da; izan ere, 1887an amaitu zen San Bartolome muinotik eginiko lekualdaketa.



31.

Marcial de Aguirre panteoia

SEZESIOA. Zalantzarik gabe, gurasoei egindako omenaldia da. Aguirre-Wittmer senar-emazteen goi-erliebezko bustoak alhora begira daude, hiriari eternitatetik begiratu baliote bezala. Gurutze baten oinarri dira, eta huntzak, gurutzeari itsatsita, gora egiten du Kristoren irudia edo hurrengo Berpizkundearen unea bilatzeko; izan ere, uso bat ikus dezakegu, olibondoaren adarra daramala. Goiburuaren parametroa goialdean jasotzen da, mazpil erako fruitua duen girlanda batekin, eta etengabe sua piztuta duten su-ontziek argizatzen dute panteoi osoa.

📍 San Prudentzio 161 - 163

Urtea: 1927

Jabea eta Sustatzailea: Marcial de Aguirre-ren seme-alabak

Arkitektoa: Augusto Aguirre

👤 Marcial de Aguirre y Lazcano

Jarduera: Eskultore

Jaiotza eta heriotza data: 1840-1900





Marcial de Aguirre y Lazcano, (*1840 Bergara +1900 Donostia). Marcial gaztea bere jaioterritik Erromara abiatu zen 1858an, marrazkigintzarako zituen dohainak lantzeko asmoz. Eduardo Rosales margolaria eta Mariano Fortuny ezagutu zituen, eta lagun egin ziren. 1864an beka bat lortu zuen, trebatzen jarraitzeko. Bi urte geroago, San Ignacio izeneko eskulturari esker, Bigarren Mailako Domina irabazi zuen Madrilgo Arte Erakusketan. Obra hari esker, ibilbide profesionala hasi ahal izan zuen.

1869an **Lavinia Wittmer**rekin ezkondu zen, 'nazarenoen' eskolako margolari alemanen alaba eta biloba zenarekin. Erroman jaio ziren haien bi seme nagusiak, Luis eta Ignacio, 1872an eta 1874an. Azken urte honetan, Donostian hartu zuten bizitokia, eta han jaio ziren Augusto, 1876an eta Francisco, 1884an.

Okendo Plazan, 1895ean, Antonio de Oquendo almiranteari monumentua eraiki zen. Proiektua Marcial Aguirrerri ardura eman zitzaion, estatua galdatzeko ardura Bartzelonako Masriera y Campins izanik.

Hilerri honetarako, zenbait bezero berezirentzako

enkarguak egin zituen; horren eredu bezala, San Sebastian kaleko 21-23an dagoen monumentua, 1885ekoa. Bestalde, Santa Katalina kaleko 79an dagoen obra ere egin zuen, 1886koa. Bertan, hainbat eragin nabari dira; batetik, Erroman jasotako arte klasikoaren gaineko lezioena, eta bestetik, margolari nazarenoen ezaugarri den baretasun espirituala. Santa Teresa kaleko 138-140an dagoen 1889ko lanean, Barrokoaren handitasuna transmititzen zaigu, estilo klasikoak berea duen bilgarri dotore eta lasaiarekin. Berpizkundeko zein Barrokoko medailoiak baliatzen ditu, hildako pertsona nabarmentzeko.

Polloeko monumentu askotan agertzen den Aguirre sinadura Marcialen semeena da. Abizen hori izango du Luisek; hamar urte baino ez zituenerako eskultore gisa izena emanda zegoen, eta hogeita birekin aldis, oinezko edo ibiltari gisa, beharbada hiritik kanpo ikasten ari zelako. Ignacio eta Franciscok ere bai. Augustok ere bai, eta 1905ean Bartzelonako eskolan arkitekto-titulua eskuratu zituenetik, plano ugari sinatuko zituen, gero bere anaiek exekuta zitzaizen. Hijos de Marcial de Aguirre etxeak biltegia ireki zuen 1896. urte inguruan, Polloetik hurbil.



32.

Yturralde panteoa

📍 San Martin 109

Urtea: 1924

Jabea, Sustatzailea eta Egilea: Diego Yturralde Arcelus

Lan-maisua: Francisco Alcorta, marmolista
Estilo arkitektonikoa: Barrokoa

👤 Diego Yturralde Arcelus

Jarduera: Eraikitzaile

Jaiotza eta heriotza data: 1857

BARROKOA. Yturraldek Barrokora begiratu du, garai hartako artearen gaietara eta adierazpen artistikora. Horretarako, gaur egun oraindik gure probintzian ikus dezakegun via crucisen adibide garbiak hartu ditu. Azken geltokia, Yturraldeko eredu gisa hartu zuena, hilerriaren barruan dago.

Memento Mori bat dugu hau. Diego Yturraldek beti gogoraziko digu, baita hilik egon ondoren ere, bizia behin-behinekoa baino ez dela, bere liburu gordin honekin: *...Yo fui lo que tú eres ahora. Mañana serás lo que yo soy ahora....* Monumentua osatzeko, Pasioan ageri diren lanabesak jarri ditu. Hildakoak bere liburuan gogorazten digu bizitza zaindua eraman behar dugula, eta hala baino ez dugula lortuko erredentzioa, hots, gure azken helburua.





Diego Yturralde Arcelus, (*1857 Donostia). 1896an Motxaeneberri Tolaretxe 23an bizi zen, Amaran. Badakigu 1900. urteaz geroztik hilerri honetan lan egin zuela. Polloeko hilerriko hainbat monumentutan aurkituko dugu haren sinadura; hilobi bakunetan, zein kapera artistikoetan. Haren obra-
ren bi adibide ditugu; besteak beste, San Bizente 29ko hilobia, 1900 urtekoa, Lorenzo Arteaga y Arbillagarentzako egina, eta 1906an Ignacio Irastor-
zarentzako egin zuen kapera, San Ignazio kaleko 109-113an dagoena. Lehenbizikoa haren obraren adibide xume bat baino ez da, baina bigarrena oso berezia da, oso ongi tailatuta eta konposatu-
ta baitago. Aurrealdean dagoen plaka simple ba-
tek adierazten du kapera Yturralde eraikitzaileak egina dela. Jatorri frantziarra zuten baina 1894an Donostian bizi ziren Maumejean beirate-egileen sinadura agertzen da beirate artistiko horietan.

“Hildakoaren aurrean gaur hemen daudenak bizi daitezela, Jaungoikoaren legearen ara-
bera hil arte. Mundu ilun honetatik bestera goazenean, Jainkoaren argia aurki dezagula denok. Zu orain zarena izan nintzen ni. Bihar zu izango zara ni orain naizena. Ongi neurtu dut gure bizi laburra, heriotzaren unean zain-
duta egoteko”.

1924ko abuztuaren 22an Yturraldek bere monu-
menturako planoak aurkeztu zituen, Via Crucisa-
ren azken geltokia izango zenarena.



33.

Ayestarán - Otamendi y Mendía panteoia

📍 San Bizente 177 - 179

Urtea: 1915

Sustatzailea: Otamendi Mendía familia

Lan-maisua: Domingo Eceiza

Egilea: T. Altuna

Estilo arkitektonikoa: Eklektizismoa

👤 Luis Ayestarán Gabarain

Jarduera: Medizinan eta kirurgian doktore

Jaiotza eta heriotza data: 1888-1954

EKLEKTIZISMOA. Klasizismoko formen artean mugitzen da, eta barrokoaren hizkuntza erabiltzen du. Bereziki aipatzekoa da panteoi honen efektismo eszenografikoa, elementuak eszenaratzeko moduari zein narrazioari dagokionez: Irakurketa hasteko, monumentuaren bizkarretik hasi behar dugu; uso bat ageri da olibondoaren adarra mokoan duela, eta hark adierazten zigun “Jainkoarengan” ezarritako “Itxaropena” hurbil dagoe-la; hain hurbil, ezen buelta ematerakoan, Aingeru Iragarlearen irudia ikusiko baitugu. Aingeruak zerurantz zuzentzen du hatza, hildakoekin biltzeko jaisten da, eta Berpizkundearen helduera iragartzeko.





Luis Ayestarán Gabarain (*1888 Donostia +1954 Donostia). Medikuntzan eta kirurgian doktorea. **Adelaida Otamendi Mendiarekin** ezkondu zen (*1889 Donostia +1985 Donostia), eta lekuko gisa, Ayestaránen lagun zirujauak egon ziren, Modesto Huici eta Luis Egaña. Hirurek elkarrekin lan egin zuten San Antonio Abad Ospitalean, Ayestarán zuzendari zela. Gizonezko seme bakarrak, Jose Luisek (*1920 Donostia +1961 Donostia), aitaren bidetik jarraitu zuen, kirurgiaren alorrean.

Benigno Oreja doktorearekin batera, Luis Ayestaránek ideia bat izan zuen: minbizia modu eskusiboan tratatu eta ikertzeko zentro bat sortzea. Ideia hura 1928an hasi zen gorpuzten, Luis Elizalde Urruzola arkitektoak Gipuzkoako Institutu Erradio-kirurgikoaren obrak hasi zituenean. 1957tik aurrera, Institutu Onkologiko gisa ezagutzen da. Elizalde arkitektoak, eraikinaren lerroak marraztean, euskal neoerregionalismoa hartu zuen ardatz. Aldakonea Gainean inauguratu zuten 1933an. Hala, Donostia hirugarren hiria izan zen halako klinika bat edukitzen, Madril eta Bartzelonaren ondoren. Luis Ayestarán izan zen haren lehen zuzendaria. 2009. urtean inauguratu zen Onkologikoa izeneko eraikin berria, Miramoneko ospitaleen eremuan.

Gerra Zibilean aingeruak sudurra galdu zuen, bala batek jota.

“Luis Ayestarán jauna gizon ona zen. Jakintsua, langilea, argia eta jantzia izatea osagarri baino ez zuen.” [Luis Ayestarán-en heriotza-oharra, Diario Vasco 1954-01-19 Alfredo R. Antigüedad-en eskutik]



34.

Romero - Sein kapera

📍 San Bizente 161 - 169

Urtea: 1909

Sustatzailea: Romero-Sein familia

Arkitektoa: Ramón Cortázar

Egilea: Tomás Altuna

Beirateak: Bartzelonako Rigalt Granell y Cía.

Estilo arkitektonikoa: Neogotikoa

👤 Anacleto Romero Zatarain

Jarduera: Abokatu

Jaiotza eta heriotza data: 1849-1908



ΝΕΟΓΟΤΙΚΟΑ. Eraikin osoak igoera-sentipena bilatzen du, hildakoaren arimarako ziurtatzen duena. Orratza zorroztu egiten da zerurantz igotzen den neurrian, arkuak gehiegizko punta du sarreraren gainean, eta gainera, estalkiaren piñoia oso garaia da; baina elementu guzti horiez gain, bi tonalitate erabili dira eraikuntzako materialean. Mutrikuko harri grisak, itxiturako harresietan erabili zenak, hildako gizona babesten du, bere loan. Aldiz, kareharriak eta arrosa koloreko marmolak arimaren arintasuna eta bolatilitatea gogorarazten dizkigute. Aingerua nahiko jarrera dramatikoan dago, Berpizkundera iragartzeko zain.

Kataluniako Rigalt Granell y Cía tailerrean egindako beirate koloretsu eta artistikoetatik barrena sartzen da argi naturala barnera. Romero Sein familia lau ebanjelistengana hurbildu da, Jaungoikoaren aurrean bitartekari izan daitezen, eta bakoitza bere ikur tetramorfikoarekin dago identifikatuta. Ikusten diren kolore bizien artean, Berpizkunderarekin identifikatutako kolore gorri bizia da aipagarriena. Antoni Rigalt beirate-egile eta artistak Lluís Domènech i Montaner arkitektoaren lanetan lagundu zuen.

Neogotikoa da, halaber, burdinazko hesiaren diseinua: goiko aldean akanto-hostoak ditu, errizoma dotoreekin; zokaloa trinkoa da, eta gurutzatutako argi-zuziekin apainduta dago, bai eta haiekin lotuta agertzen den eta bizitza iheskorra dela adierazten duen hegodun harrea-erlojuarekin ere.



[Anacleto Romero Zatarain](#), (*1849 Usurbil +1908 Donostia). Gaztea zela, Filipinetara alde egin zuen, eta urte gutxi geroago itzuli zen, dirutza txiki baten jabe. Hala, Donostian jarri zen bizitzen, abokatu gisa, 1876. urtean. María Loreto Sein y Aguirrebengoarekin ezkondu zen (*1848 Oiartzun +1915 Donostia). Askatasunaren Hiribidean zegoen familiaren egoitza, eta Anakletok bi ibilbide egin zituen aldi berean: batetik, politikoa, 1876 eta 1889an Probintziako Diputatu izatera iritsi baitzen, eta bestetik, enpresa eta banketxeetako jarduerak. Jarduera horien ondorioz, kultura eta turismoaren aldetik hiria eta probintzia sustatzen jardun zuen gogotsu. San Telmo Museoaren sortzaileetako bat izan zen, eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko ordezkari.

Haren semea [José Romero Sein](#) izan zen (*1877 Donostia +1916 Donostia). [Ana M^a Dorregore](#)ekin ezkondu zen (*1875 +1967 Donostia), eta aitaren ibilbide politikoari jarraitu zion, alderdi liberalaren barruan. 1914ko apirilean, Probintziako Aldunditik Madrilgo Senatura jauzi egin zuen, baina ibilbide hura goiz eten zen, hogeita hemeretzi urte bete berri zituela hil baitzen. Donostia eta Gipuzkoa sustatzeko lanean ere hartu zuen aitaren lekukoa. “*Erregeren Ezkutari*” titulua ere jaso zuen.



35.

Zappino kapera

📍 San Bizente 122 - 126

🗓 **Urtea:** 1910

👤 **Sustatzailea:** María Teresa Barcáiztegui Manso

🏠 **Lan-maisua:** Domingo Eceiza

🗿 **Egilea:** Altuna, marmolista

🏗 **Estilo arkitektonikoa:** Neogotikoa

👤 **Luis Zappino Samaniego**

🛡 **Jarduera:** Militar

ΝΕΟΓΟΤΙΚΟΑ. Hileta-kapera honetan, helburua da nagusi: igoera-sentipena, eta estilo horrek bere-berea du, gauza anekdotikoak salbu. Materialen kalitate eta koloreek eragina dute lurreko elementuetan, kolore arrosa argiko silarrien bitartez, eta elementu etereoetan aldiz, kolore argiak du garrantzia, hots, bertikaltasunera jotzen duten elementuetan. Koloreen barietate hori hiriko arkitekturan ikusten den joera modernistarekin lotuta dago. Argia beirate koloretsuen iragazkitik sartzen da barrura. Jesusen Santa Teresa, Jesusen Bihotzarekin bat eginda, eta San Frantzisko Xabier Maria Ama Birjinnarekin -Mariaren Bihotza-. Argi dago zergatik hautatu ziren horiek: hildakoek salbazioa nahi zuten, eta horretarako aipatzen zituzten beren santuak: Santa Teresa Teresa Barcáizteguigatik eta San Francisco Javier, aldiz, haren aita Francisco Javier Barcáizteguigatik. Otoizlaburrak ere badira:

🗣 "Nire salbatzaile atseginarekin bihotz, zure maitasuna nigan piztu eta hazi dadila" eta "Mariaren Bihotz Goxoa, izan zaitez nire salbazioa".

Azken hori elementu erakargarri bihurtzen da kaparen barrura sartzeko sarreraren gainean dagoen erliebean.





Luis Zappino Samaniego, familiako tradizioari jarraituz, ibilbide militarra egin zuen; Enrique osaba jenerala izan zen, eta Federico Zappino Moreno aita, aldiz, zalditeriako koronela. Amaren aldeko familia politikan ibili zen; izan ere, Luisa Samaniego Soroa amaren neba Victor bereziki nabarmendu zen politikan, XIX. mende amaieran. Víctor Gorteetako diputatu izatera iritsi zen, hiriko alkate 1890-3 urteetan, eta gainera, Donostiako merkataritzan eta industrian parte hartu zuen.

María Teresa Barcáiztegui Manso, Luis Zappinoren alarguna, Javier Barcáiztegui de Uhagón politikari foruzalearen eta Carmen Manso Pérez de Tafalla, Llobregateko markesaren alaba zen. Garai hartan, José Javier nebak Barcáiztegui banku arrakastatsua sortu zuen, eta bere seme Federico Zappino izango zen haren zuzendari garrantzitsua bat.

Zappino Barcáiztegui bikotea ospakizun sozialetara joan ohi zen. Esate baterako, haien izena agertzen da infantea 1905ean Donostiara iritsi zenean harrera egiteko bildu zen segizioaren barruan.

1907ko urriaren 17an, senar-emazteak garai hartako automobil gutxietako bat gidatzen ari zirela, istripua izan zuten Herrerako zubi batean. Hantxe hil zen Luis 39 urterekin. Teresak, senarraren oroimenean, Herrerako San Luis Gonzaga Eliza eta Eskola eraiki zituen.

1928an, Teresa Barcáiztegui Santa Kolunbaren gorpu usteldu gabea Erromatik ekartzea lortu zuen, eta Herrerako San Luis Gonzaga Elizan jarri zuen.



36.

Urbietako kaleko sutearen monumentua - 1893

Uxueko Ama Birjina kalea

Urtea: 1894

Sustatzailea: Donostiako Udala

Arkitektoa: José de Goicoa

Egilea: Francisco Eguren



1893an Urbietako kalean izandako biktimen monumentua. 1893ko martxoaren 19an, goizaldeko hamabi eta erdiak inguruan, sute larri bat sortu zen Urbietako kalean. 6. zenbakiko sotoan hasi zen; eta zoritxarrez, soto hura beheko solairuko gozotegi eta likore-dendarekin bat eginda zegoen. Hala, suak eskaileratik hedatu zen, eta barruko patiotik, gainerako solairuetara iritsi arte. Denbora gutxira, Alderdi-Ederreko parketik ikusten ziren sugarrak. Ez zegoen bitarteko hormarik 6. zenbakiko etxebizitzaren eta 4. eta 8. zenbakikoen artean, eta ondorioz, haiek ere erre egin ziren. Hala ere, bizilagunak handik ateratzeko denbora egon zen.

Sua sortu zen etxeko bizilagun batzuk, azken solairuan bizi zirenak esaterako, onik atera ziren, Miguel Irastorza obra-maisua azkartasunari esker, ondoko teilatuetara jauzi eginda ihes egin baitzuten.

José de Goicoa udal arkitektoak eta haren laguntzaile eta suhiltzaileen buru Juan Muguerza obra-maisua kontu handiz zuzendu zuten operazio hura. Udal arkitekto izateak suhiltzaileen buru izatea zekarren, eta eraikuntza-alorretako langileak ere parte hartzea behartuta zeuden. Langileak sutea itzaltzera joan ziren, eta hurrengo eguneko prentsan irakur zitekeen moduan, heroiaren moduan jokatu zuten, baina hala ere ez zen nahikoa izan.

Donostiako prentsa guztiak aipatu zuen suteetako zerbitzuak nolako hutsuneak zituen: suhiltzaileek denbora behar izan zuten sutera iristeko, behargin gutxi zeuden, bost mahuka baino ez zituzten, eta gainera, laguntzarako baliabideak urriak ziren. Horrexegatik hartu zuen suak halako indarra. Suhiltzaile profesionalik ez izateaz kezkatzen ziren; izan ere, suhiltzaile-lanetan ari zirenak arotzak, igeltseroak, zapatariak eta abar ziren, beren ofizioa izateaz gain, suhiltzaile boluntario gisa ibili behar zutenak. Ez zen talde antolatua. Gainera, ez zegoen laguntza-talderik prest, eskatzen zen lekura berehala iritsi ahal izateko. Gai horiek Udalarari helarazi zitzaizkion. Halaber, lokalaren jabeak axolagabe jokatu zuela aipatu zen; izan ere, sotoan alkohol ugari zuen gordeta, eta ondorioz, suak oso azkar hedatu zen. Bestalde, etxeetako patio eta sotoetan egur mardoa zegoen



gordeta. Horren inguruan, aipatu zen Donostia hiriko Etxeen Eraikuntzarako Ordenantzen 50. artikuluan debekatu egiten zela hori. Horrez gain, sutea sortu zuen etxeak ez zuen besteengandik bereizteko hormarik, eta horrek eraikuntzaren akats larri bat jarri zuen agerian. Eraikuntzako Ordenantzen arabera, horma horiek karez eta harri-koskorrez eginda egon behar zuten, eta erre-gai oro kanpoan utzi beharko zuten. Ordenantzak hobeto betearaztea eskatu zen.

Sutearen biktimei laguntzeko harpidetzak berehala antolatu ziren, hiriko hainbat lokaletan.

Hildako 24 bizilagunen hileta Santa Maria elizan egin zen.

Francisco Eguren marmolariaren tailerrak Murtrikuko harria erabili zuen estela egiteko; bertan grabatu zituzten, urre kolorez, eskaintza eta erramu-adarraren apaingarria, loriaren adierazgarri. Hilobia mugatzeko, fundizioan egindako 6 zutabe daude, kareharrizko oinarrien gainean, eta zintzilik dagoen kate batek elkartzen ditu.

37.

Euskal disko- formako estela - Uruñuela panteoia

📍 Kontzepzio Taldea 27

👤 José Tomás Uruñuela

Jarduera: Musikari

Jaiotza eta heriotza data: 1891-1963

José Tomás Uruñuela (*1891 Gasteiz +1963 Donostia). Zientzia Kimikoetan lizentziatua izan arren, gaztetatik erakutsi zuen musikarako gaitasuna zuela. Aita izan zuen irakasle, Dimas Uruñuela, hura ere musikaria. 20ko hamarkadan, Eusko Ikaskuntzen I. Kongresuak bultzatutako kultur giro erregionalistaren eraginez, euskal musika eta folklorea jasotzeko interesa piztu zen. Berezik aipatzekoa izan zen Aita Donostiak egindako lana, eta ondoren, Uruñuelak egindakoa ere bai; Lekarozeko kaputxinoen komentuan egiten ziren musika-saio eta -bileren bitartez. Izan ere, Lekaroz hartzen da Euskal Musika Abertzaletasunaren sorterritzat. Gerra Zibilean zehar Parisen erbesteratu zen, eta han, dantza klasikora hurbildu zen asko. Gerora, itzuli zenean, Donostian sortu zuen ballet akademian jarri zuen esperientzia hura praktikan. Aipatzekoak dira, haren lanen artean, *Aita Gurea*, *Maitia nun zira*, *Auresku Viz-*





caino, *El Clavelín de Bendaña* eta *Dance National Basque*, txisturako egin zituen konposizioak ahaztu gabe, noski.

Euskal tradizioa berreskuratzeko espirituaren barruan, disko formako estela erabiltzen da, musikologo gasteiztarra oroitzeko. 1958an, San Martzial 200ean duen hileta-monumentua egin zenean, lehen aldiz erabili zen Polloeko hilerri honetarako antzinako disko formako estelen tipologia. Euskal artearen eta kulturaren bereizgarri gisa hartu da. Asmo horretxekin altxatu ziren 76ak. Lis-lorearen tankerako gurutzea eta Malta-koa, lauburua, eta eguzkiarekin lotutako irudiak dira maizen agertzen direnak.

Hemen hizpide dugunak, dimentsioari eta materialari dagokienez, antzinako ereduen antza du. Ikurrak erabiltzen ditu -Erdi Aroko esteletan ikusten dugu hori-, eta hala, hildakoak bizitzan zehar garatu zituen gaitasunak adierazten dizkigu: lira bat, koblakariaren atributua, eta luma, musikagile seinale. Grafiaren karaktereetarako, "*euskal estilo*" deritzon trazua baliatu da. G.B. hizkiek Goian Bego adierazten dute.

José jauna, hilik, hilkutxan sartzerakoan, hark bere gelan eduki ohi zuen gazezur bat sartu zuen haren ikasle batek. Adierazi zuen, norbaitek noizbait gorpua hilotitik aterako balu, barruan bi gazezur aurkituko zituela (Aguraingo anaia Píok esana).

38.

Francisco Zubiaurre Cabañas "Kiriko" panteoia

📍 Santa Teresa 255

Urtea: 1918

Jabea: Francisco Zubiaurre

Proiektua eta Egilea: Altuna

👤 Francisco Zubiaurre Cabañas 'Kiriko'

Jarduera: Traineru patroia

Jaiotza eta heriotza data: 1867-1926

Francisco Zubiaurre Cabañas 'Kiriko' (*1867 Getaria +1926 Donostia. Zortzi urteko haurra zela, familiarekin Donostiara aldatu zen, gerra karlistetako istiluetatik ihesi. 24 urterekin, Donostiako traineruaren patroia bihurtu zen. Kontxako Banderaren hurrengo hiru edizioak irabazi zituen (1891, 1892, 1894). Donostiako arraunlarien loraldia izan zen, XIX. mende amaieran. Mende berriarekin, garaipenak urriago izaten hasi ziren, eta XX. mendeko lehena 1915ean iritsi zen. Orduan, Kiriko Donostiako traineruaren lemazain egin zen berriro, eta beste bi garaipen eskuratu zituen: 1918 eta 1920. Azken hori, ordea, arbitroen inguruko eztabaida handien erdian irabazi zuten. Ikusmen-arazoengatik, erretiratu egin behar izan zuen.

Donostiako arraunlariak beste bi garaipen baino ez dituzte lortu, azkena 1950ekoa. Horregatik, Francisco





Zubiaurre pertsonaia mitikoa bilakatu da, Donostiako arraunaren zaleentzat, garaipen gehien lortu zituen Donostiako patroia izan baita (14tik 5).

Baina dena ez zen arrakasta izan. Honelaxe kontatu zigun 1919ko irailaren 7ko estropadetan izandako zorigaitza:

“Hauxe esan zuen Kirikok: “Estropada hasi aurretik, nire arraunlariek izugarrizko gogoa zuten borrokatzeko, eta oso urduri zeuden. Estropada hasteko prestatu bezain pronto, irteteko seinalea entzun nuenean, aurrean nuen arraunlariari arrauna hautsi zitzaion, eta zur eta lur gelditu nintzen, zer egin ez nekiela. Ondean zuen arraunlariak esan zion: ‘Egin jauzi uretara’ eta Anthonek jauzi egin zuen trainerutik. Asko sentitu zuen gertatutakoa, eta ontzia desorekatuta utzi zuen.

Nik ez nuen arraunlarien artean gehiago agintzen; arraunlariek, izugarrizko gogoz, borrokan jarraitu zuten, zortzi emanez, besteek sei ematen zituzten bitartean. Noski, lehiatzen ari ginela ikusita, ahalegina egiten utzi nien, baina hamalauok egon izan bagina, ez nieke inoiz halakorik egiten utziko.

Anthon falta zenez, ontziak kulunka egiten zuen, eta horregatik, ibilbidea erdi eserita egin behar izan nuen. Zutitzen nintzenean, erabat desorekatzen nintzen, eta energiek ez zuten emaitza onik ematen. Horrela ezin nituen balizak ongi ikusi, eta nire arraunlarien gogoa bizia onartu besterik ezin izan nuen egin, eta gure zorte txarra arintzeko neukan borrokatzeko gogoa.” [El Pueblo Vasco, 1919-9-8].

Lehenak iritsi ziren lehen buiara, eta hirugarren eta azkenak iritsi ziren helmugara, Orio eta Pasai San Pedoren atzetik.



39.

Álvaro de Laiglesia panteoa

📍 Bakearen Ama Birjina 171

Jabea: Álvaro de Laiglesia González

👤 Álvaro de Laiglesia González

Jarduera: Idazle, umorista eta kazetari
Jaiotza eta heriotza data: 1922-1981



Álvaro de Laiglesia González (*1922, Donostia +1981, Manchester). Madrilera joan ziren bizitzera, baina Igel-doko magalean zegoen familiaren etxea *Villa Sorolla* berentzat gorde zuten, udako oporretan hara joaten baitziren. Familiako negozioek krisia izan zuten, eta 1936ko udan, familiak Donostiara itzultzea erabaki zuen. Lehenbizi ama etorri zen bi alaba eta Álvaro gaztearekin. Astebete beranduago, aita aterako zen bi seme nagusiekin, baina plan horiek bertan behera geldituko ziren, gerra hasi baitzen, eta familia bananduta gelditu zen. Donostian bizi zela, Álvaro Flecha haurrentzako aldizkari falangistarekin kolaboratzen hasi zen. Handik gutxira, *La ametralladora* aldizkarian lan egin zuen; hura ere falangearena zen, eta borrokalariei zuzenduta zegoen. Erredakzio hartan ezagutu zuen Miguel Mihura, aldizkariaren sortzaile eta zuzendaria.

Gerra amaitu zenean, eta aldizkaria itxita zegoela, Habanara abiatu zen, eta han, Diario de la Marínan lan egin zuen. Laster itzuliko zen Madrilera, eta Miguel Mihurak kontratatuko zuen La codornizeko erredaktore burua izateko. Aldi baterako, lana utzi zuen, Dibisio Urdinean sartzeko. II. Mundu Gerran borrokatu zuen, eta zauritu egin zuten. Sendatutakoan, berriro ere frontera itzuli zen berriro, baina orduko hartan, Informaciones egunkariko berriemaile gisa. Madrilera itzuli zenean, erredaktore buru gisa hasi zen berriro. 1944an, Mihurak utzi egin zuen aldizkaria, eta Álvaro de Laiglesia izendatu zuen zuzendari. 1977an aldizkaria itxi zuten arte egongo zen karguan. Laiglesiarekin batera lan egin zuten maila handiko pertsonai askok, besteak beste, Gómez de la Serna, Jardiel Poncela, Mingote, Chumi Chúmez, eta beste hainbatek. 1952an eskusiba bat sinatu zuen José Manuel Lara-rekin, eta Espainian gehien irakurtzen zen umorista bihurtu zen. La codornizeko zuzendari izateaz aparte, beste lan batzuk izan zituen; adibidez, telebistako serie eta filmetako gidoilari izan zen. Antzerkirako obrak eta liburuak ere idatzi zituen, eta berrogei lanetik gora argitaratu zituen, gehienak eleberriak, umore handikoak denak. Ingalaterran hil zen, Anne Heath emaztearen senide batzuen etxean.



Hilarriko epitafioan bertan ere, haren umorea hautematen da. Bertan, Álvaro de Laiglesia, agur esateko, 'Gero arte' esaten digu.



40.

Martín - Santos panteoia

📍 San Pedro 324

👤 Luis Martín-Santos Ribera

Jarduera: Psikiatra, mediku eta idazle
Jaiotza eta heriotza data: 1924-1964

[Luis Martín-Santos](#) Ribera medikua, psikiatra eta idazlea (* 1924 Larache, Maroko +1964 Gasteiz), laurogeita hamarreko hamarkadako eleberririk garrantzitsu eta berritzaileenetako baten egilea izan zen: *Tiempo de Silencio*. Eleberrri hartan idazleak, protagonistaren birtutez, Madrilgo gizarte frankistaren ikuspegi kritikoa eskaintzen zuen, eta garai hartako Espainiako literatura dagoeneko agortuta zegoen errealismo soziala gainditzea lortu zuen. Erreferentzia mitikoak baliatzen ditu, metafora sinbolistak eta ironia handia; hala, idazleak bere pertsonai askorekiko duen mesprezua adierazten digu.

[Leandro Martín Santos](#) mediku militar eta jeneralaren (*1895 Topas, Salamanca +1971 Donostia) semea zen. Aitak Larache izan zuen lehen destino, Marokon. Han, trebetasun handia hartu zuen gerrako zaurituen kirurgian, eta anputazio ugari ekidin zituen. Sabelean jasotako balen zauriak sendatzen zituen, beldur handia sortzen zutenak, eta gerora, *Manual de cirugía de guerra* lan garrantzitsua argitaratu zuen. Garai hartako Salamancako prentsak interes handiz jarraitu zituen haren medikuntzako lorpenak. 1929an lekualdatu zuten, eta Donostiara joan zen behin betiko. Han, Martín Santos Erietxe Kirurgikoa sortu zuen 1935ean, gaur egungo Quirón Klinika. Horretarako, Villa Pilarte antzinako egoitza erosi zuen, neogotikoa, Egia auzoan.

Luisek ere medikuntza hautatu zuen, eta Salamancan ikasiko zuen. Madrilen eta Alemanian jarraitu zuen ikasten. Doktore-tesi bat ere egin zuen, filosofia eta psikiatriaren arteko harremanari buruzkoa. 1951n Donostiara itzuli zen, eta hiriko Erietxe Psikiatrikoko zuzendari izateko oposaketak irabazi zituen. Postu hartan egongo zen bere bizitzaren amaiera arte.

[Rocío Laffon](#) haren emaztea etxeko istripu batean hil eta urtebete baino gutxiagora, Luisek zorigaiztoko ez-behar bat izan zuen autoan, Gasteizen, eta berrogei urte bete aurretik hil zen, hiru haur txiki umezurtz utzita.

Luis Martín-Santos, urteetan zehar, alderdi sozialistako militante izan zen, eta ondorioz, hainbat aldiz atxilotu



zuten.

Atxilo-aldi horietako batean, Salamancako Unibertsitateko katedra baterako oposaketetara aurkeztu zen, eta esku-burdinekin joan behar izan zuen azterketetara. Hil zenean, behin-behineko askatasunean zegoen, epaiketaren zain.

Luisek 1960an *Tiempo de Silencio* obra aurkeztu zuen Donostiako literatura-lehiaketa batera. Epaimahaikideak Donostiakoak eta Madrilgoak ziren. Ezizenez sinatu behar zutenez, Luisek alderdi sozialistan zuena hautatu zuen, '*Luis Sepúlveda*', garai hartan askok ezagutzen zutena. Lehiaketa oso eztabaidatsua izan zen, izan ere, Madrilgo epaimahaiak bere hautagaia ekarri zuen, eta hark irabazi behar zuen. Azkenean, saria hutsik gelditu zen. Hala eta guztiz ere, haren obrak merezitako errekonozimendua jaso zuen denborarekin.



41.

Miguel Asín Palacios panteoia

📍 San Pedro 431

Sustatzailea: Jaime Oliver Asín

👤 Miguel Asín Palacios

Jarduera: Apaiz eta arabista

Jaiotza eta heriotza data: 1871-1944

Miguel Asín Palacios, (*1871 Zaragoza +1944 Donostia), apaiza. Hogeita hamabi urterekin, Madrilgo Universidad Central unibertsitatean Arabierako Katedra irabazi zuen. Erdi Aroko eta Berpizkunde garaiko filosofia, teologia eta aszetika kristauen sustrai islamikoak ikertu zituen bereziki. Danteren Divina Commedia laneko eredu musulmanak azaldu zituen. Halaber, XVI. mendean Espainiako mistikak San Juan de la Cruz eta Avilako Santa Teresarekin izan zuen gailurrak sufismo islamiarrarekin izan zituen harreman estuak ere ikertu zituen. Oso proposamen berritzaileak izan ziren, eta hasiera batean, eztabaidatsuak. Denborarekin berretsi egin dituzte proposamenok, eta Mendealdean gelditu den ondare islamiarra ikertzerako orduan, Asín Palaciosen erreferente nagusietako bat izaten jarraitzen du. Errege Akademia nagusietako kide hautatu zuten: Zientzia Moral eta Politikoa (1912), Historiakoa (1924) eta Hizkuntzarena (1919); haren zuzendari izan zen, gainera, 1943ko ekainaren 23tik hil arte.





XX. mendeko lehen erdian Espainian izan zen arabista garrantzitsuenetakoa izan zela esan daiteke.

Gazte-gaztetatik, Donostian igarotzen zuen uda. 1936ko udan, Gerra Zila hasi zenean, Donostian harrapatu zuen, eta gerra amaitu arte bertan egon zen. 44ko udan, gibelean zuen gaitzaren ondorioz, Salamanca pasealekuko 12.ean zuen etxean hil zen, abuztuaren 13an.

San Bizente elizan izan zen hileta, eta hantxe izan ziren erlijioaren munduko, politika nazionalako eta udal politikako pertsonaia ezagunak, eta kulturakoak. Hiriko alkate Rafael Lataillade ere hantxe izan zen, Granadako alkatearen ordezkari gisa, Granada baitzen Ikasketa Arabiarren Eskolako egoitza. Azken agurra ematera etorri ziren beste hainbat solaskide ere, besteak beste Julio Urquijo Historiako akademikoa, Modesto López Otero Zientzia Moral eta Politikoetakoa, bai eta la-

gun mina zuen Juan Zaragüeta apaiz, kazetari eta filosofoa. Guztiek egin zioten lagun hildakoaren familiari, eta senideen artean zen, besteak beste, hildakoaren iloba eta dizipulu Jaime Oliver Asín, Arabiar Ikasketen Eskolaren zuzendaria eta espainiar Literatura eta Hizkuntza katedraduna. Miguel Asín Palaciosen heriotza eta gero, Historia Akademiaren kide izendatu zuten.

Dolores Oliver Pérez Asinek, Jaime Oliverren alaba eta Miguel Asín Palaciosen iloba-biloba, familiaren arabiar tradizioa jarraitu zuen.

Hil-oharrean, Kontxako Pasealekuko tamarindoen azpian paseatzen irudikatu zuten, solasaldi '*jantz*' haietan izan ohi zituen lagunekin; hala nola Juan Zaragüeta, Julio Urquijo, Jenaro Carreñorekin, eta taldera azkenak sartu ziren Modesto López Otero eta Felipe Peñarekin.



42.

Jesusen bihotzaren irudia

📍 San Sebastian 430 - 432



NEOBARROKOA. Barrokoko estatuek duten forma eta espresiora itzultzeaz hitz egiten digu monumentu honek. Ikusleak parte hartzea bultzatu nahi duen eszenatoki dinamiko bat sortu da.

Jesusen Bihotzaren irudiak gorakada izan zuen Donostian XX. mendeko lehen hamarkadan. 1902an, Garibai kaleko Jesusen Bihotzaren eliza eraikitzen hasi ziren, Juan Bautista Lázaro arkitektoaren eskutik eta 1904an amaitu zuten, Daniel de Zuloagak atariko tinpanoa apaindu zuenean. Ataria apaintzeko, kolore leunak ziztuzten zeramika piezadunak baliatu ziren, eta Jesusen Bihotzaren bustoa irudikatu zen, alboetan aingeruak zituela. Eraikuntza hura egiten zen bitartean, 1903an, Teresa Dupouy-ren amak –gerora 1930an Jesusen eta Mariaren Bihotzaren Misiolarien kongregazioa sortuko zuenak– lurrak eman zituen Mirakontxako Gainean, izen hura zuten serorek eskola handi bat eraiki zezaten.

1913an Mariano Benlliure eskultoreak Jesusen Bihotzaren irudi bat egin zuen, orduz geroztik Groseko San Ignazio eliza neogotikoan egongo zena, eta hala, hango mezen buru izango zena. Halaber, 1916ko apirilaren 25ean, La Constancia egunkariko irakurleek aldaketa bat ikusi zuten egunkariaren goiburuan, Berpizkundearen igandean hain zuzen ere: egun hartatik aurrera, irudi sakratuaren busto bat agertuko zen han, inprimatuta.

Ikusten dugun monumentuaren berdin-berdina da San Bizente 291-293an dagoena, 1931. urtekoa. Orientazio klasiko baten barruan, San Martin 321-323ko obra dugu, 1925. urtekoa.

Bestalde, Jesusen Bihotzaren irudia erabili zen kaperetako beirateak apaintzeko. Polloen zenbait adibide ditugu: esaterako, San Ignazio 109-113an dagoena, 1906koa, San Prudentzio 140-144koa, 1905ekoa, edo San Bizente 122-123ko kaperakoa, 1910ekoa, besteak beste. Bi adibide: San Sebastian 156-158 eta 255-257koa, 1908 eta 1914koa hurrenez hurren. Horietan, Jesusen Bihotzaren bustoa aukeratu da hileta-monumentuaren buruan jartzeko. Eta bada beste modalitate artistiko bat: irudia osatzeko teselak erabiltzea. San



Sebastian 157-167an dagoen 1902ko kaperan, irudi bikain bat agertzen zaigu, mandorla batean sartuta, guztia material horrekin egina.

Urtetik urtera, jai-egun desberdina izaten du, baina beti izaten da Mendekosteko bigarren igandea-
ren ondoko ostirala. Bederatziturrenak hainbat elizatan errepikatzen ziren: Santa Maria elizan, San Ignazio, San Bizenten, Kaiko San Pedron, Artzain Onaren elizan eta nola ez, Garibai kaleko Jesusen Bihotza elizan. Balkoiak haren irudi jainkotiarra agertzen zuten tapizekin janzen ziren, eta Artzain Onaren elizatik haren irudia ateratzen zen prozesioan.

Erlijiorako gogo sutsu horren barruan ulertu behar da herritarren harpidetzei esker Federico Coullaut-Valera eskultoreak 1945ean Urgull Mendiaren gainean egin zuen estatua bikain eta izugarria.

Ekaineko azken igandean, 30ean, egiten diren bisitak bezain beste barkamen oso lortu daitezke. Horretarako, beharrezkoa da aurretiaz hamabost sermoi edo hizketaldi entzutea, hileko beste hainbeste erregu gupidatsutan egotea, eta sei pater, ave eta gloria erreztatzea, horietako bat Aita Santuaren asmoetarako. Guztiz Santua zena zaintzeko konpromisoa hartu zuten pertsonak bereziki gonbidatuta daude egun horretan Jesusen Bihotzari lagun egitera.” [El Pueblo Vasco, 1935eko ekainaren 28an]



43.

Sanz - Acín panteoia

Isidoro Uribesalgo eskultore gipuzkoarrak 1916an San Ignazio elizan, Grosen, Mandasko Dukearen panteoira-ko egin zuen monumentua hartu zuen eredutzat, kasu honetan, Altunaren tailerrak. Uribesalgok *Berpizkundearen aingerua* deitu zion bere obrari. Izan ere, zain dagoen aingeru bat irudikatzen da, Berpizkundearen unea iragartzeko unearen zain, baina aldi berean lasai dagoena. Sanz-Acín familiaren monumentuak garai barroko eskulturaren proposamenak hartzen ditu ardatz. Monumentuaren posizio estrategikoa baliatzen du -hots, beheagoko terraza batetik ikustea-, haren zentzu eszenografikoa areagotzeko. Erabilitako materialen kalitate eta koloreek are gehiago nabarmentzen dute Berpizkundearen ilusioa.

📍 San Frantzisko Xabier 56-58

Urtea: 1955

Sustatzailea: José Sanz y Lacambra

Proiektua eta Egilea: Altuna

👤 Carlos Sanz Acín

Jarduera: Mediku

Jaiotza eta heriotza data: 1923-1999





Carlos Sanz Acín, (*1923 Fanlo (Huesca) +1999 Donostia). Bi urte zituela etorri zen haren familia Donostiara. Medikuntza ikasi zuen Zaragozako Fakultatean eta Madrilén egin zen doktore, 1951ean. Kirurgia Orokorreko eta Liseri Aparatuko Medikua zen; Madrilgo Probintzia Ospitalean hasi zen lanean, baina handik gutxira Donostiakora aldatu zen. 1979an, Sociedad Policlínica Guipuzcoana S.A. sortu zuten mediku eta enpresari ospetsuen taldean egon zen. Espainiako Proktologia Sozietatearen zuzendaritzako kide izango zen, bai eta hari zegokion Nazioarteko Proktologia Akademia-koa ere. 1982an Euskal Herriko Medikuntzaren Errege Akademiako kide izendatu zuten. 1999ko azaroaren 11n hil zen.



44.

Julián Rezola panteoia

JOERA ARRAZIONALISTA. Goiburua osatzeko, triptiko gisa antolatuta dauden elementu maklatuak jarri dira. Hodi itxurako segmentudun erregistroak erabilia, gorputz bakoitzaren eginkizuna hobeto markatzen da: erdikoa Gurutzearen bertikaltasunaren -igoera- luzapena da, eta alboetako gorputzak aldiz, horizontalean daude hildakoen erregistroa jasotzeko, eta hala, itxaronaldian zehar hartzen den atsedena irudikatzen dute. Familia Karmengo Ama Birjinaren izenpean jarri zen.

Trinitate Guztiz Santua 1 - 3

Urtea: c. 1945

Sustatzailea: Julián Rezola

Proiektua eta Egilea: Altuna

Julián Rezola Zabaleta

Jarduera: Industri ingineru

Jaiotza eta heriotza data: 1894-1975





[Julián Rezola Zabaleta](#) (*1894 Donostia +1975 Donostia), [Ricardo Rezola Olasagastiren](#) (Santa Katalina, 46) bigarren semea izan zen. Rezola-tar familia zementu-egilearen hirugarren belau-naldikoa zen, eta bere ibilbide profesional osoan zehar, kargu garrantzitsuak bete zituen familiaren enpresan. Formazioz, industria ingeniaria izan zen, eta Cementos Rezolako ingeniarien buru 1929tik aurrera; Administrazio Kontseiluko kide 1933tik aurrera, zuzendariorde gerente 1955etik aurrera, eta azkenik, zuzendari nagusi 1967an. Kargu hura bete zuen 1974 arte, gerora heriotzara eramango zuen gaitzak betebeharrak haiek uztera behartu baitzuen une hartan.

Konpainiara sartu zenean, finkatuta zegoen erabat, baina une hartatik aurrera, eta bereziki, gerra zibilaren ondoren, hazi eta hazi egin zen. 1947an, Rezola zen Espainiako lehen zementu-etxea, eta 70eko hamarkada hasiera arte, hazkundearen zifrak ikusgarriak izango ziren. Baina Julián Rezolari krisiaren lehen urteak ezagutzea egokituko zitzaion oraindik. 1971tik aurrera, diru-sarrerak murriztu egin ziren; izan ere, merkatu nazionalaren eskaria txikitu egin zen, eta kanpoko lehia handitu. Zementua stocketan metatzen hasi zen, eta petrolioaren krisiak gainbehera geldiezin bat ekarri zuen.

Beste alderdi batean ere nabari izan zitzaion proiektu filantropikoak zituzten enpresari tradizionalen ohiko espiritu hura; izan ere, bizitoki izan zuen Añorga auzoko langileen koloniagatik arduratu zen.

Haren emazte [Celia García Salasnac](#) (1900-1989) Pablo García AVECILLA abokatu eta enpresariaren alaba zen.

Juliánen seme [José Miguel Rezola García](#), 1985etik aurrera, zuzendari nagusiaren kargua bete zuen, eta huraxe izan zen abizen hark enpresan izan zuen azken ordezkaria. Une hartatik

aurrera, sektorea unerik zailenetako batean zegoenean, Cementos Rezola beste enpresa handi batzuek bereganatu zuten pixkanaka; lehenbizi enpresa frantziarrek, eta gero italiarrek. Rezola abizena zuzendarien artean desagertu bada ere, izen komertzial gisa behintzat huraxe gorde dute.



45.

Clara Campoamor - Monsó Familia panteoa

Hil-oihala duen gurutzearen eredua gehitzen zaigu, hemen, 30eko hamarkadako hileta-monumentuen bil-dumara, baina 40ko hamarkadan ugartu ziren horre-lakoak gehien. Hamarkada hartan bereziki aipatzekoak izan ziren, monumentalak zirelako, baina hurrengo ha-markadaren erdialdera, haien proportzioak txikitu egin ziren. Ur-ontzia edo lorontzia, hileta-monumentuaren apaingarri gisa, hogeita hamarreko hamarkadaren amaieran eta berrogeiko hamarkadaren hasieran hasi zen hedatzen Polloeko hilerrian.

📍 Juncaleko Andre Maria 65 - 66

Urtea: c.1960

Sustatzailea: Monsó Riu, Segú familia

👤 Clara Campoamor

Jarduera: Abokatu eta politikari

Jaiotza eta heriotza data: 1888-1972





Segismundo Monsó Codó (*1913 Guardia (Lleida) +1985 Donostia), ogibidez, gozogilea. Berrogeiko hamarkada inguruan iritsi zen Donostiara eta 1946an La Golosina gozotegia ireki zuen San Martin kalean.

Haren anaia **Juan**, (+1981 Donostia), **Pilar Lois Acevedo**rek in ezkondu zen (*1912 +2000 Donostia), **Matilde Acevedo**ren alabarekin (+1964 Donostia). 1910 eta 1913 artean, **Clara Campoamor** (*1888 Madril +1972 Lausanne (Suitza)) Donostian bizi zen, telegrafista gisa lan egitera etorri baitzen. Garai hartan Matilde Acevedo ezagutu zuen, eta adiskidetasun harengatik, Pilarren ama ponteko izan zen. Adiskidetasun hark, gainera, haren bizitza amaitu arte iraun zuen. Pilar izan zen Clararen oinordeko.

1931ko apirilaren 14an, Errepublikak aldarrikatu zen egunean, Campoamor Donostian zegoen. Izan ere, Donostiara etorri zen 1930ean Jakan izandako altxamenduan parte hartu zuten ofizial errepublikazaleen defentsan abokatu gisa parte hartzeko.

Clara Campoamorrek harremana zuen bizitza politikoarekin, Madrilgo La Tribuna egunkarian lan egiten baitzuen. Bi oinarri defendatzen zituen:

errepublikazaletasuna eta emakumearen berdintasun politikoa. Ideal haiekin, ordea, ezin zuen inongo alderdi politikotik lekurik bilatu. Diputatu izan zen Lehen Parlamentu Errepublikarrean, eta berak bultzatu zuen emakumearen boto-eskubidea, ezkerreko alderdien iritziaren kontra. Gerra Zibilaren ondorioz, erbesteratu egin behar izan zuen, eta ezin izan zuen Espainiara bizirik itzuli. Lausanne-en hil zen.

2011tik, Dora Salazarrek egindako Clara Campoamorren eskultura dago ikusgai haren izena duen Vinuesa plazan, Kontxako pasealekuaren ondoan.



46.

Rotondo Nicolau panteoia

Teresa Nicolau eta haren seme Adriano-ren hilobia, 1940 arte, San Lorenzo kaleko 94an zegoen. Monumentu hau, 1895ekoa, Matías Arteaga obra-maisuak eginitako dolmen bat zen. Hilarri horrek gaur egun oraindik gure haran eta mendietan ikusten ditugun lauzak, lur jabetzen mugak ezartzen dituztenak, ekartzen dizkigu gogora. Burdinazko kateak eta zutabeak, azken horiek flamerodun erremateak dituztenak, antzinako monumentuaren arrastoak dira.

📍 Junkaleko Andre Maria 46

Urtea: 1940

Jabea: Emilio Rotondo Pebrez

Proiektua eta Egilea: Altuna

👤 Teresa Nicolau y Parody

Jarduera: Margolari

Jaiotza eta heriotza data: 1817-1895





Teresa Nicolau y Parody, (*1817 Madril +1895 Donostia. Fernando VII. erregearen ohorezko idazkari Isidro Nicolau eta bi Sizilietakoko kontsularen alaba Concepción Parodyren alaba zen. Margolaritzarako dohainak zituen, eta gainera, aitak Vicente López Portaña ezagutzen zuen, erregeren ganberako margolaria. Horri esker, haren dizipulu izan zen. Arte miniaturistan eta erretratuetan espezializatu zen, eta Pelayo Quinterok 1907an adierazi zuen moduan, Espainiako eta atzerriko lehen miniaturisten artean toki bat merezi izan zuen. Errege barnetegi bat eskaini zioten, eta 1838an, hogeita bat urterekin, San Fernandoko Arte Ederren Akademiako eta Valentziako San Carlos Akademiako ohorezko akademiko izendatu zuten. 1866ko erakusketan lehen mailako Ohorezko Aipamena jaso zuen "*Jesukristo gurutzea bizkarrean duela*" miniaturarekin, hots, Sebastián del Piomboren obra homonimoaren kopia batekin. Ikasleak eta maisuak erretratuak egin zizkioten elkarriz, eta Lázaro Galdeano Museoa *Vicente López* izeneko erretratu bat dago, ustez Nicolaurena izan litekeena, eta Pradoko Museoa aldiz, Vicente Lópezek egindako Teresa gaztearen erretratu bat. Haren lan zabalaren barruan, aipatzekoa da La Sibila de Cumas, *il Dominiquino*-ren koadro baten kopia, eta Jordánek margotutako beste koadro baten kopia, *Virgen, El Niño Dios y San Juanito*. Margolari trebea izateaz gain, hainbat hizkuntza menderatzen zituen, literaturan jantzia zen, eta historiako ikertzailea. Zaletasun horiek guztiak Antonio Rotondo y Rabasco senarrarekin partekatzen zituen. Senarra, bide batez, Karlos III.-aren Gurutze Handiaren Zaldun zen. Gizon polifazetikoa izan zen gainera; izan ere, Errege Etxeko dentista izateaz gain -1830ean izendatua-, margolaria zen, literatoa, bost hizkuntza zekizkien eta musikaria ere bazen. Gaitasun haiei esker, obra garrantzitsua utzi zuen. Emilio eta Adriano semei ere hitoria eta arkeologiarako bokazioa transmititu zieten.

Donostia zen, aspalditik, Teresak uda igarotzen

zuen tokia, eta hementxe hil zen, 1895eko abuztuaren 13an, Marina kalean zuen etxean.

1917an Donostian hil zen haren seme **Adriano Rotondo Nicolau**. Hilarrian ikus daitekeen moduan, Espainiaren Errumania eta Casablancako kontsul izan zen. Baina antikuari gisa ere agertzen da, eta Historiako Errege Akademiako idazkari gisa, 1872an. 1882tik 1898ra Marokon egon zen, eta han egon litezkeen aztarnategi arkeologikoak aztertu zituen. 1913an, azkenean, Larache-n aurkitutako kameu bat aurkeztu zion Historiaren Errege Akademiari. Obra hauek egin zituen, besteak beste: Un camafeo de Larache eta La cueva de Cervantes.

Teresa Nicolauk, Santa Teresarenganako jaiera zuenez, haren abituekin jantzita ehortzi zezatela eskatu zuen. Beste hainbat emakumek bezala, akademikoaren titulua bazuen ere, inoiz ez zitzaion aukerarik eman Akademiaren barruan eskolak emateko.



Oinarrizko Bibliografia

ARIÈS, P. *El hombre ante la muerte*, Ed. Taurus, Madrid, 1999

BERMEJO LORENZO, M^a Carmen. *Arte funerario en la cornisa cantábrica*, Universidad de Oviedo, 1994

GÁRATE OJANGUREN, M^a Montserrat. *La fábrica de tabacos de San Sebastián. Historia y estrategia empresarial: 1878-2003*, Ed. Dirección de Comunicación de Altadis, 2006

GÁRATE OJANGUREN, M^a Monserrat. *La familia Brunet, San Sebastián y América. Presencia catalana en el puerto donostiarra siglos XIX-XX*, Boletín de estudios históricos de San Sebastián, 1990

LANCIS, Lancis. *Guía de Guipúzcoa*, San Sebastián, 1895

LÁZARO, Luis. *Vidas y muertes de Luis Martín-Santos*, Ed. Tusquets, Barcelona, 2009

LARRÍNAGA RODRÍGUEZ, Carlos. *Actividad económica y cambio estructural en San Sebastián durante la restauración 1875-1914*, Instituto Dr. Camino, Donostia, 1999

NISTAL, Mikel. *Inhumaciones y mortalidad en San Sebastián*, Lurralde, 18, San Sebastián, 1995

NISTAL, Mikel. *Los traslados de cementerios en San Sebastián en el siglo XIX: la aparición de Polloe*, Mundaiz, Universidad de Deusto, 1997

NISTAL, Mikel. *La aparición de los servicios de carros fúnebres en San Sebastián*, Mundaiz, Universidad de Deusto, 1998

MADOZ, Pascual. *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar*, Madrid, 1894

MORALES SARO, M^a Cruz. *Paraísos en mármol. La imagen del ángel en la escultura funeraria*, Coloquios de Iconografía, Madrid, 1989

ORDÓÑEZ VICENTE, María. *El Romanticismo funerario en Polloe (San Sebastián)*, Ondare. Cuadernos de Artes Plásticas y Monumentales, Donostia, 2002

RILOVA JERICÓ, Carlos. *El Duque de Mandas (1832-1927)* Instituto Dr. Camino, Donostia, 2008

SADA, Javier M^a. *Historia de la ciudad de San Sebastián a través de sus personajes*, Ed.Alberdania S.L, Donostia 2002.

VVAA Cementos Rezola. *150 años de historia*. Edita Cementos Rezola, 2^a Ed. 2001

VVAA Comercios donostiarras centenarios n^o2, Ed. Los autores, San Sebastián, 2010

Álbum Gráfico Descriptivo del País Vasco, 1914-1915

ARTXIBOAK
Donostiako Udal Artxibo Historikoa
Diozesiar Artxioba. Sakramental liburuak
Fototeka Kutxa

BERTAKO PRENTSA
Diario de San Sebastián
El Diario Vasco
El Eco de San Sebastián
La Unión Vascongada
La Voz de Guipúzcoa